


hh
hik hasi

Baso-eskola eredua
Hezkuntza Akordioaren gakoak
Ikasle ekintzaileak Bernat Etxepare lizeoan
Txillardegiren ekarpena hezkuntzari
Ekonomia ezagutu ahalduntzeko
Ur mara museoa
Aratz Vitoria Porrás

162



“ Itunak norabide baten inguruan ilusioa eta bultzada sortzeko balio behar du”

PELLO OTXANDIANO

ARIAN

IRAKURGAI MAILAKATUAK

NOBEDADEAK



Legarraren desagerpena

Miren Gorrotxategi

Marrazkiak: Manu Ortega

Telmo Legarra polizia ohia herrira itzuli da, desagertutako alabaren bila hamar urtez Europan barrera ibili ostean. Polizia-senari eutsi ezinik, berriro ekin dio ikerketari. Oraingoan aurkituko ote du Nahia?

Dakota eraikinean

Esti Vivanco

Marrazkiak: Dani Maiz

Deiene Aketxetak New Yorkeko Guggenheim museoan lan-praktikak egiteko gonbite-mezua jaso du. Birritan pentsatu gabe, mezuari baietz erantzun dio. Baina gau horretan bertan, loak hartu ezinik ibili da. Erabaki ona hartu ote du?

AURKIBIDEA

GAIA / 10

BASO-ESKOLA EREDUA

Gero eta gehiago dira atek zabaldu eta aire zabalera ateratzen diren eskolak. Ikasgela bizia da natura; ikasteko, jolasteko eta ikertzeko gunea. Aukera ugari eskaintzen dizkigute kanpoko espazioek eta curriculumeko edozein arlo lantzeko aukera ematen digute. Ausardia behar da atek zabaldu eta naturara gerturatzeko, baina atearen beste aldean onura handiak aurkituko ditugu.

ELKARRIZKETA / 18

PELLO OTXANDIANO

Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan hezkuntza akordioa lortu dute lau alderdi politikok eta une historiko honetako protagonistetako bat da Pello Otxandiano EH Bilduko programa zuzendaria. Hitzarmenaren balioaz aritu da, eta horrek eraldaketa pedagogikorako eta sozialerako duen ahalmenaz. Egingo diren urratsak Euskal Herriko hezkuntza eredu propioa eraikitzeko bidean kokatzen ditu.

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguilera eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943 37 14 08 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Ainhoa Azpirotz, Ainara Gorostitzu, Olatz Lasagabaster.

Erredakzio batzordea: Kontxi Aizarna, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugartetxea, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

Aholkulariak: Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe

Garmendia, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Goñi, Nerea Mendizabal, Karmele Perez Urza, Matilde Sainz, Nora Salbotx eta Xabier Tapia. **Administrazioa:** Uxue Ugartemendia. **Azaleko argazkia:** Marisol Ramirez / Foku. **Diseinua:** Grafik.

Maketazioa: Xangorin.

Inprimategia: ANTZA S.A.L. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2022-3-15). Kopurua: 3.400 ale.

Hik Hasiko edukiak baliatu eta zabaldu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta soilik baldintza beretan eginez gero. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

5 EDITORIALA

Iraultza da, ekin diezaiogun

10 GAI NAGUSIA

Baso-eskola eredua

18 ELKARRIZKETA

PELLO OTXANDIANO

“Prozesu hau oso inportantea izan daiteke gure eredua eraikitzeko”

24 EKARPENAK

Hezkuntza Akordioaren oinarriak eta gakoak adostuta geratu dira

26 ESPERIENTZIAK 1

“Ederra da bizi!”

30 ESPERIENTZIAK 2

Ikasle ekintzaile eta parte-hartzaileen dinamika Bernat Etxepare lizeoan

34 AHALDUNTZE ESKOLA

Ekonomia ezagutu herritar gisa ahalduntzeko

36 GALDEIDAZU

Zein izan zen Txillardegik hezkuntzari egin zion ekarpena?

39 ARGITALPENAK

40 PROPOSAMENA

Ur mara museoa

42 ATZEKO ATETIK

Aratz Vitoria Porras





Iraultza da, ekin diezaiogun

editoriala

HITZ HANDIAK DARABILTZAGU:
ADOSTASUNA, HITZARMENA, IRAULTZA,
ERALDAKETA, DESZENTRALIZAZIOA,
HEZKUNTZA BURUJABETZA,
KALITATEA... HITZAK EGI
BILAKATZEKO UNEA DA.



Mugimendu askoko hilabetea izan da pasa dena eta zurrunbiloaren erdian martxoaren 18an ikusi genuen argazkia: EAJ, EH Bildu, PSE-EE eta EP-IUko ordezkariak elkarrekin Hezkuntza Hitzarmena sinatu berri horren berri ematen. Historikotzat jo den ituna izan da eta ate berriak ireki dituena, bai lankidetzarako eta baita hezkuntzaren eraldaketarako ere.

Duela urtebete ez zegoen giroa sortu da alderdi politikoen artean. Praktikan ezker abertzalearen eta EAJren artean gauzatu den lehenengo akordioa da, Lizarra-Garazi hankaz gora erori zenetik. Oraingoa gai partzial bat da, hezkuntza, baina ez da edozein gai. Oso gai inportantea da herri eraikuntzan. Egiten ari den eztabaidarekin, hezkuntzatik herri eredu bat irudikatzen ari da. Orduan, horren inplementazioa eta garapena ondo egiten baldin bada, eraldaketa sozialari tira egiteko gaitasun handia izango du. Ikusteke dago, baina oinarri sendoak baldin badaude, horrek indar handia dauka eta garrantzitsua da.

Hasteko, Araba, Bizkai eta Gipuzkoarako, eta ondoren Nafarroarako eta Iparralderako. Nafarroan debate bertsua egitera doaz, ireki da eztabaida eta Euskal Autonomia Erkidegoko adostasunen oinarriek Nafarroarako balio dezakete. Nora begira

jarri behar du Nafarroak, Aragoira ala hiru probintzietara? Elkarri eskua luzatzeko moduan egon gaitezke, izango delako zer eman eta zer hartua.

Bizitzen ari garen une hau inportantea izateaz gain, iraultza gisa definitzen du Pello Otxandiano EH Bilduko programa zuzendariak zenbaki honetako elkarrizketa nagusian. Iraultza da pedagogikoki eta metodologikoki, iraultza da ikastetxeetan dakartzan aldaketengatik, iraultza da ikaslearentzat bera erdigunean kokatzen delako, iraultza da udalentsat eta hezkuntza ez-formaleko eragileentzat, iraultza da gobernantza eredu aldatsen delako, iraultza da euskararen helburuak markatzen direlako, iraultza da jatorri eta maila ekonomikoarengatik segregazioa serio hartu eta horri aurre egiteko mekanismoak zerrendatzen dituelako, iraultza da eredu espainolaren errepikapen hutsean oinarritu ordez beste eredu bat proposatzen delako –titularitate desberdinen bateratzean, herrietako komunitateen proiektu hezitzaileetan eta kohesio sozialean oinarritua–.

Iraultza txiki-handi asko, denen ilusioarekin eta indarrarekin egi bilakatzeko. Baliabideak, elkarlanerako borondatea, elkarri entzuteko jarrera eta etorkizunerako ikuspegi zabala izango dira osagaiak.

“Gure herriak herri menperatu izatearen kontzientzia galdu duen momentura iritsi gara

Ane Ablanedo

HILEKO IRUDIA





ERDIETSI DUTE HEZKUNTZA AKORDIOA

2022ko martxoaren 18a egun historikotzat hartuko da Euskal Herriko hezkuntzaren historian. Eusko Legebiltzarreko hezkuntza ponentzian EAJ, EH Bildu, PSE-EE eta EP-IU alderdiek adostasuna lortu zuteneko eguna izango da. *Euskal hezkuntzaren eraldaketarako oinarrien akordioa* sinatu zuten ordu luzeetako negoziazioen ostean. Isabel Gonzalezek (Elkarrekin Podemos-IU), Jose Antonio Pastorrek (PSE-EE), Leixuri Arrizabalagak (EAJ), Ikoitz Arresek (EH Bildu) eta Iñigo Martinezek (EP-IU).

Dokumentua bozkatu, oniritzia eman eta Legebiltzarreko osoko bilkurak onartu ondoren, adostutako oinarriak abiapuntutzat hartuta, EAEko Hezkuntza Legea idazteko prozedura abiatuko da orain, 2023ko udaberriko egina egotea aurreikusten delarik. Ordura arteko hilabeteetan herritarren eta hezkuntza eragileen ekarpenak jasotzeko espazioak irekiko dira.

Argazkia: Irati Urdalleta Lete / Berria
Gasteizen, 2022ko martxoaren 18an

HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

NAFARROAKO HAUR ESKOLETAN EZ DELA ARTA “DUINA” BERMATZEN SALATU DUTE

Martxoaren 26an Iruñeko kaleetara atera ziren Nafarroako Haur Eskoletako langileak, protestan, Nafarroako 0-3 plataformak deituta. Langileek adierazi zuten 0-3 urte arteko umeen eskoletan ez dela arta “duinik” bermatzen, zerbitzu “garestia eta elitista” ematen dela, eta “prekaritate” irten ezineko egoera batera bultzatzen dituela eskola horietako profesionalak.

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak ez diela jaramonik egiten salatzen dute hezitzaileek, eta bilera eskeak eginak dituzten arren Hezkuntza sailburu Carlos Gimeno erantzun ere ez diela egin adierazi dute. Gobernuak “lotsagabeki” bazter uzten dituela uste dute, eta grebaren bidea besterik ez dute ikusten jada.



129 ‘BULLYING’ KASU ATZEMAN DITU EUSKO JAURLARITZAK, IAZ BAINO 29 GEHIAGO

Gero eta *bullying* kasu gehiago ikertzen eta detektatzen dira Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako eskoletan: izandako salaketen % 13 berretsi dituzte jazarpen gisa. “Arloan sentsibilizazio, trebakuntza eta ezagutza handiagoa dagoelako”, Eusko Jaurlaritzaren arabera. 2020-2021eko ikasturtean, hiru lurraldeetako ikastetxeetan 966 salaketa aztertu zituzten ikuskariak, eta % 13 eskola jazarpen gisa identifikatu zituzten: 129 kasu izan ziren, aurreko ikasturtean baino 29 gehiago. “Zalantzarik txikiena ere aztertzen dugu; zorroztagoak gara kasu posibleak identifikatzean”, azaldu zuen Lucia Torrealdai, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Aniztasun eta Hezkuntza Inklusiorako zuzendariak.

IKASTURTEA HASITA IRITSI DIREN IKASLEEN % 39 A EDO B EREDURA BIDERATU DITUZTE

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako hezkuntza sistemara iazko irailetik aurtengo martxora iritsitako ikasleen datu xeheak eskuratu ditu *Berria* egunkariak. Datu horien arabera, orotara, Haur Hezkuntzako bigarren ziklotik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara bitarteko 5.858 ikasle hartu dituzte. Banaketa ez da orekatua: % 39 A edo B eredura bideratzen dituzte —hurrenez hurren, gaztelera hutsezko eredu, euskara irakasgai izanda eta erdia euskaraz eta erdia gaztelerez egiten duten eredu—, eta % 56, sare publikora. Nafarroako datuak ez dira hain zehatzak: guztira, 1.605 iritsi dira, eta % 74 bideratu dituzte ikastetxe publikoetara.

GASTEIZKO HAINBAT IKASTETXETAN IKASLEEN % 84K JATORRI ATZERRITARRA DU

Hezkuntza sisteman jatorri migratzaileak duten gazteen egoera aztertzeke ikerketa bat egin dute Steilasek eta Ikusbide elkarteak. Arabak, Bizkaia eta Gipuzkoak “estatuko eskola segregazio tasarik handiena” dutela ondorioztatu dute. Gasteizko hainbat ikastetxetan egin dute ikerketa.

HIZPIDE IZANGO DA

APIRILAREN 10EAN DONOSTIAN BUKATUKO DA KORRIKAREN 22. EKITALDIA, EUSKARAREN ALDEKO JAI HANDI BATEKIN

Martxoaren 31n Amurrion hasi eta hamar egunez (eta gauzez) geldialdirik egin gabe, apirilaren 10ean Donostiara iritsiko da euskararen aldeko ekimenik jendetsuena. "Hitzetatik ekintzetarako jauzia" aldarrikatzen du 22. Korrikak eta hortik datoz *Hitzekin* leloa eta izen bereko kantua, Sustrai Colinak idatzi eta Nerea Urbizuk musikatu duen abestia. Donostian 12:30etan emango zaio bukaera aurtengo ekitaldiari. Korrikak, azken edizioetan egin ohi duen legez, ikastetxeetan lantzeko unitate didaktikoak prestatu ditu mailaz maila. Aurtengoan Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak izan dira omenduak. Informazio guztia www.korrika.eus webgunean dago eskura. Ekarpene ekonomikoa egiteko aukera zabalik dago, oraindik ere, <https://www.korrika.eus/form/ekarpenak/> atalean.



HEZKUNTZA PLAZARA-K HEZKUNTZA AKORDIOAREN IRAKURKETA EGINGO DU

Eusko Legebiltzarreko lau alderdi nagusiek Hezkuntza Akordioa erdietsi izana "urrats garrantzitsua" da Hezkuntza Plazara plataformarentzat. Aurrera begira, akordioaren inguruko irakurketa kolektiboa egingo du, Hernanin martxoaren 5ean egindako agerraldi jendetsuan aurkeztutako adierazpeneko zazpi ardatzak kontuan hartuta (hezkuntzarako eskubidea; inklusiorako eskubidea; euskalduntzeko eskubidea; eraldaketa pedagogikoa eta metodologikoa; autonomia eta parte hartzea; Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoa eta erabakitze eskubidea, hezkuntza burujabetza). Topaketa apirilaren 2an egingo dute Gasteizen.

LUZAROREN HEZIKETARAKO PSIKOMOTRIZITATE PRAKTIKAN FORMATZEKO IZENEMATEA ZABALIK

Luzaro psikomotrizitate Eskolak UNED-Bergarako ikastetxe Elkartuarekin antolatzen duen bi urteko Heziketarako Psikomotrizitate praktikan formatzeko ikastaroa 2023ko urtarrilean hasiko da eta 2024ko abenduan amaituko da. Dagoeneko matrikulazioa zabalik dago. www.luzaro.net helbidean lor daiteke informazio gehiago.

EH PIKLER-LOCZY ELKARTEAK JARDUNALDIAK EGINGO DITU APIRILAREN 30EAN

Noaingo kultur etxean izango dira Euskal Herriko Pikler-Loczy elkar-tearen jardunaldiak, apirilaren 30ean, 9:30etik 13:30era. Teresa Godall pedagogo eta ikertzailea, Ion Navarro osasun zientzietako doktorea eta Leire Irigibel Kabia haur eskolaren sortzailea izango dira hizlariak. *Motrizitate askeko errepertorioa* dibulgazio posterra ere aurkeztuko da. Informazioa eta izen ematea (apirilaren 10era arte): www.piklerloczy.org webgunean.



Gero eta gehiago dira atek zabaldu eta aire zabalera ateratzen diren eskolak. Natura ikasgelarik handiena dela esan ohi da eta baieztapen hori ez dagokio tamainari soilik. Izan ere, lau pareren artean baino askoz ere gehiago ikas daiteke kanpoko espazioetan. Ikasgela bizia da natura, ziklikoa, konplexua, eta beti mugimenduan dagoena. Ikasteko, jolasteko eta ikertzeko gunea da natura. Ongizatea, askatasuna, sormena, harremanak lantzea, jolasa... Aukera ugari eskaintzen dizkigute kanpoko espazioek eta curriculumeko edozein arlo lantzeko aukera ematen digute, gainera. Testuliburuak itxi eta zentzumen guztiak martxan bertatik bertara ikusi, usaindu, ukitu, entzun eta dasta daitezke naturak eskaintzen dizkigun aukera guztiak. Ausardia behar da atek ireki eta naturara gerturatzeko, baina atearen beste aldean, onurarik baino ez dugu aurkituko.

GAIA: BASO-ESKOLA EREDUA

Kanpoan asko dago ikasteko

Bost urte dira Kutxaren Ekoguneak Baso-eskola proiektua abiatu zuela. 2015-2016 ikasturtean aurretiko lanak eginda, 2017an hasi ziren hainbat ikastetxerekin batera lanean. Irati Andoño Erdozain Baso-eskola eredu teknikaria da eta berak azaldu digu nola hasi zen dena: “Garai hartan Kutxa Ekoguneak Hezkuntza Programa bat zuen eta horren baitan, ikasleek egun bateko jarduera egiten zuten Ekogunean bertan. Baina gaur egun hurrek eta gazteek naturarekin duten harremana oso eskasa dela ikusita tarte horiek zabaltzeko beharraz ohartu ziren, Europako Iparraldera begira jarri ziren eta oso interesgarria iruditu zitzairen Baso-eskolaren eredu martxan jartzea”.

Pentsatu eta egin. Hainbat eskolarekin harremanetan jarri eta proiektuarekin aurrera jo zuten. Ikasleek naturarekin harreman egonkorra izatea erronka gisa hartuta, naturako espazio batera maiztasun handiagoz joateko proiektua garatu zuten. “Gure ereduak helburu bikoitza du: ikasleen garapen integralean positiboki eragitea

naturak eskaintzen dituen onurak aprobetxatuz, eta natura eta bioaniztasuna babestea. Hezkuntza Komunitate osoaren inplikazioa eskatzen duen proiektua izanik, ingurumen kontzientzia denen artean lantzeko eta garatzeko aukera eskaintzen du. Era berean, etorkizun jasangarriagoa sustatzen ari gara, gizarte ekozentrista-goa eta eko-alfabetizazioa ere bultzatzen dugu”, esan du Andoñok.

Gaur egun 32 eskolak hartzen dute parte egitasmoan: “Eskolak parte hartzen hasten direnean aholkularitza eskaintzen diegu eta gure laguntzaz jartzen dute martxan eredu, baina behin ibilbidea eginda, urte bete edo bi urteren buruan, haien kasara kudeatzen dute eta denon artean Baso-eskola Sarea osatzen dugu. Garrantzitsua iruditzen zitzaigun sarea sortzea komunitate izaera hori izateko, elkarrengandik ikasten eta hobetzen jarraitzeko”.

Eskola batek Baso-eskola eredu parte hartzea erabakitzen duenean, irakasleek 15 orduko oinarrizko

GAIA: BASO-ESKOLA EREDUA

Kanpoan asko dago ikasteko

ikastaroa jasotzen dute. Naturaren ezagutza lantzen dute, segurtasun irizpideak, naturan jolastea, curriculumeko edukiak nola uztartu eta Baso-eskolako gidalerroak: saio bat nola antolatu, zer behar duten... Ondoren irteera lagunduak egiten dituzte ikastaroan ikasitakoa praktikan jartzeko eta aholkularitza pedagogikoa eta babeska eskaintzeko. Lehenengo saioetan irakasleak lasai eta gustura sentitzea funtsezkoa da. Eskola bakoitzak erabakitzen du lagundutako saioak zenbat izango diren eta gerora, bakarrik aritzen dira baina Ekoguneko teknikarien laguntza dute: “Gu beti gaude prest eskoletara joateko, beren kezka erantzuteko... Zaindu behar ditugu. Apustu handia egiten dute, oso ausartak dira. Daukagun jarduteko moduarekin apurtu, ateak ireki eta beste pauso batzuk emateko prest daude. Lan handia egiten dute eta ahalegin hori zaindu behar dugu”, dio Andoñok.

Jarduerarako eremuak bilatzeak garrantzi handia du: “Udaletxea bilaketa horretan inplikatzeko oso aberatsa iruditzen zaigu. Hezkuntza komunitate osoa inplikatzeko da proiektuan. Aberatsak diren eremuak bilatzen ditugu, betiere: jolaserako, esploraziorako eta ikerketarako aberatsak diren espazioak behar ditugu. Eta segurtasun aldetik ere irizpide batzuk finkatzen ditugu”.

Naturaren onurak

Gaur egun ordu asko ematen ditugu espazio itxietan eta naturarekin harreman zuzena eta jarraia izateak onura ugari dakarzkigu Andoñok azpimarratu duenez: “Dimentsio motorea asko aberasten da, berez naturan bizitzeko prestatuta baikaude eta espazio itxietan ia ezin gara mugitu. Dimentsio kognitiboa ere aberasten da, naturak kontzeptu abstraktuagoak lantzeko eta ulertzeko aukera eskaintzen digulako: izan daitezke klima larrialdia, heriotza edota aniztasuna, adibidez. Aniztasuna zer den ikasten dute, heriotza zer den ere bai, elementuak agertu eta desagertu egiten direlako... Eta dimentsio soziala eta emozionala lantzen dira. Komunitatearen beharraz ohartzeko aukera dute eta baita euren ingurua edo mundua ulertzeko aukera ere. Sormena lantzen da, ingurua patxadaz aztertzeke denbora duzulako, asperzteke... Ordea, gaur egun bizi garen erritmo azkarrean ez dugu ia denborarik pentsamendu konplexua garatzeko eta horrek dimentsio askotan eragin dezake. Baso-eskolan hipotesiak eta behaketak egiteko aukera dute, gero hipotesi horiek ebatzeteke, ikerketak egiteko... eta hori pentsamendu konplexuarekin lotuta doa. Jolasa aberasten da, ongizatea ere bai, erresilientzia eta jakin-mina areagotzen dira... Oro har, geroz eta denbora



“Gure ereduak helburu bikoitza du: ikasleen garapen integralean positiboki eragitea naturak eskaintzen dituen onurak aprobetxatuz, eta bioaniztasuna babestea”

Irati Andoño Erdozain, Baso-eskola eredu teknikaria

Egun bat Baso-eskolan

Malgutasunez jokatzeari ezinbestekoa da, taldearen egoera, eguraldia edota interesak ez direlako beti berak izaten. Baina, oro har, horrela antolatzen dute eguna:

- Eskolan bildu eta Baso-eskolara eramateko materiala prestatzen dute.
- Abiatzea. Bidea bera hezteko tartea da.
- Eremura iristean bertan biltzen dira. Bilgune horrek ikasleen ahalduntzea, komunikazioa eta enpatia lantzeko balio du.
- Jolas librea. Haurren behaketa egiten da betiere haien segurtasuna bermatuz.
- Berriro bilgunera. Haurrek hitza hartzen dute. Edukiak txertatzeko unea izan liteke, baita jolasen bat edo dinamikaren bat egiteko unea ere.
- Hamaiketakoa, dena jaso eta eskolara. Batzuek egun pasa egiten dute otorduak naturan bertan egin.
- Eskolara heltzean haurrei aldatzen laguntzen diete, baina autonomia landuz.

Basoko arau batzuk (talde bakoitzak adosten ditu eta aldatzen joan daitezke):

- Ezin da minik eman, ez lagunei ez bestelako izaki bizidunei.
- Makilak gerritik behera erabiliko dira, bestela ziurtatu inor ez dagoela inguruan.
- Haurrek irakasleen begi-bistan egon behar dute.
- Fruituak, onddoak... ez dituzte ukituko ezagutzen ez badituzte.

gutxiago dugu naturarekin harremanetan izateko eta horrek arazoak sortzen ditu: arazo kognitiboak (hiperaktibitate kasuak), arazo psikikoak (depresioa, antsietatea, estresa...) eta isolamendua. Fisikoak ere bai, jakina (obesitate tasa altuak, miopia...).

Jarduerak aurrera egin ahala, haurrengan garapena nabarmena izaten dela dio Andoñok: “Ikasle asko ahaldundu egiten dira naturarekin harremanetan eta rolak ere asko aldatzen dira elkarlanean aritzeko beharra suertatzen delako. Talde-nortasuna eta harremanak indartzen eta aldatzen dira... Prozesu aberasgarria da”.

Curriculuma lantzeko proposa

Naturan eduki guztiak landu daitezke. Egokitzea eta begirada aldatzea da kontua. Eredu honek modu holistikoan hezteko aukera ematen duela dio Andoñok: “Begirada zabaldu behar dugu eta dugun aukeraz ohartu behar dugu. Izan ere, gauza oso interesgarriak gertatzen dira saio guztietan eta interes guñeak askotarikoak dira. Ia talde guztien interesekoa da eraikuntzak egitea, adibidez. Orain eskola batean eraikuntzak lantzen hasi dira: etxetik hasita, herriko eraikuntzak, prototipo bat egin dute basora joan eta bertan eraikitzeke... Teknolo-

giak ere sar ditzakezu 3Dn sortzeko. Gaur egun dugun sistema eraldatzen ari da baina industrializazioaren garaiko egitura fisikoa dugu ikasgelen egiturari eta espazioaren egituraketari dagokionez... Ausartu behar dugu, atek irekitzea eta naturara gerturatzea, salto hori ematea garrantzitsua da. Natura ikasteko, jolasteko, ikertzeko gunea da eta aukera handiak ematen ditu. Barne espazioetan dena estatikoa da baina naturak bere fluxuak ditu, aldatzen doa uneoro eta hori oso aberasgarria da denontzat”, esan digu Andoñok.

Ekogunea Gipuzkoan aritzen da Kutxa Fundazioaren Gizarte Ekintzaren egitasmoa delako baina Gipuzkoatik kanpo ere ikastaroak eskaintzen dituzte, eta pixkanaka beste herrialdeetan zabaltzen ari da egitasmoa: Atxondon, Lekeition edota Iruñean, esaterako.

Hau bosgarren ikasturtea dute eta Baso-eskolaren jardura hasi duten eskola guztiek jarraitzen dute egitasmoan. Muga nagusia baliabide pertsonalak izaten direla dio Andoñok: “Eskola gehienetan esaten dute Lehen Hezkuntzara zabalduko luketela edo saio gehiago egingo lituzketela baina euren muga baliabide pertsonalak direla. Hezkuntza Sailarekin harremanetan gaude proiektua aurkezten eta ea aukera dugun gehiago zabaltzeko”.

Zaldibiako Lardizabal eskolaren esperientzia

Duela urte batzuk eman zuten atea zabaltzeko eta naturan hezteko pausoa Zaldibiako Lardizabal eskolan. 2017an Haur Hezkuntzako ikasleak eskola ondoko parke botanikora ateratzen hasi ziren egunero eta ikasle horiek Lehen Hezkuntzara iritsita, jarduerari jarraipena emateko beharra sentitu zuten. Gaur egun 2 eta 12 urteko ikasleek hartzen dute parte Baso Eskola jardueran eta egunero ikusten dute zeinen garrantzitsua den haur eta gaztetxoak naturan hezea. Eider Amundarain, irakasle eta zuzendariarekin, Añarbe Kalonje LHko irakaslearekin eta Maite Garmendia HHko irakaslearekin izan da **Hik Hasi** eta haiek azaldu dute jardueraren nondik norakoa.

Naturarekin harremanetan haztea eta hezea onuragarria dela-eta, atea zabaltzea eta natur eremuak baliatzea erabaki zuten Zaldibiako Lardizabal eskolan. Eskola ondoko parke botanikoan jolasten ikusten zituztenean konturatzen ziren haurrentzat plazer hutsa zela bertan jolasean aritzea. Eta irakasleentzat ere plazera zen haurrak han ikustea. Horrela hasi ziren Haur Hezkuntzakoak egunero kanpora ateratzen. Etxetik katiuskak eramaten dituzte, ikasgelan uzten dituzte eta egunero ateratzen dira ikasgelatik. Goiz erdia pasatzen dute kanpoan, eta hala, neguan ere kanpoan epelago dagoenean uzten dute ikasgela. Horrek guztiak Lehen Hezkuntzan jarraipena behar zuela pentsatu zuten, baina ez zekiten nola egin eta hasieran zalantza izan zen nagusi. Izan ere, baliabideak behar dira, Lehen Hezkuntzan curriculumeko edukiak txertatzeko presioa handiagoa da... Eta duela bi urte, pandemiak bultzada eman zion egitasmoari. Aire zabaleko jarduerak lehenetsiko zirela zehaztu zuen orduan ezarritako protokoloak eta horri helduta proposatu zuten Lehen Hezkuntzan ere astero goiz bat eskolatik kanpo pasatzea. Horrekin batera, Ekogunearen eskutik irakasle talde osoari prestakuntza-saioak eskaintzen hasi ziren.

Komunitatearen inplikazioa oso garrantzitsua izan da

Zaldibian prozesuaren hasieratik bertatik. Hala esan du Eider Amundarain Lardizabal eskolako zuzendari eta irakasleak: “Guraso batek herri inguruan egin daitezkeen 12 ibilbide prestatu zizkigun eta horiek txandaka egiten hasi ginen, goiza kanpoan pasatuz. Iaz egun finkorik gabe aritu ginen, baina aurrean dena egituratu dugu: talde bakoitzak bere eguna du eta bi irakasleekin egiten dute jarduera”. Jarduera horretara bi irakasle bideratzeak, ordea, beste leku batzuetatik kentzea eskatzen du eta baliabide pertsonal gehiago izatea garrantzitsua izango litzatekeela diote: “24 irakasle gara eskolan eta dauzkagun baliabideekin egin behar dugu aurrera. Hezkuntza Sailak baso eskola proiektuak dauden eskoletan baliabide pertsonalak jartzea nahiko genuke, zeren haiek esan zuten aire zabaleko ekintzak lehenesten dituztela eta talde bakoitzak gutxienez bi irakasleekin atera behar duela, baina gero ez dute hori gauzatzeko baliabiderik jartzen”.

Amundarainek azaldu digunez jarduera gauzatzeko lau eremu erabiltzen dituzte: “Eskolaren ondoan dugu parke botanikoa, Haur Hezkuntzakoak egunero erabiltzen dutena, eta Lehen Hezkuntzakoak normalean beste hiru eremuetara joaten dira. Udaletxeak eta eskolako ikasle batzuen aitona lagundu ziguten lurak bilatzen.

“Naturara egokitu behar duzu. Ez da kanpora liburuarekin joatea eta kanpoan jarraitzea, baina liburuko edukiak landu ditzakezu”

Añarbe Kalonje, Lehen Hezkuntzako irakaslea

GAIA: BASO-ESKOLA EREDUA



Hiru eremu aukeratu genituen, elkarren artean oso ezberdinak: batek erreka dauka, beste bat aldapatsua da, bestean animaliak egoten dira... Behin lur eremuak zein izango ziren erabakita, hitzarmena sinatu genuen udaletxearen, eskolaren eta lurjabeen artean eta hor zera arautu genuen: jabeak eskolari lurra musutruk uzten diola baso eskolako jarduerara egiteko”. Gurasoek eremuak egokitzen ere lagundu zuten, auzolanean aritu ziren egiteko horretan eta udaletxearen laguntza ere eskertzekoa da, gure beharrak asetzeko prestutasuna erakusten baitu beti”.

Curriculuma naturan landuz

Apustu handia egin zuten Lardizabalen eta irakasle talde osoak jaso zuen prestakuntza. “Curriculuma nola txertatu aztertzen ari gara orain, programazioak idazten... Izan ere, oso desberdina da Lehen Hezkuntzako 1. mailakoekin edo 6. mailakoekin aritzea. 6. mailakoek, adibidez, unibertsoa lantzen ari direnez, baso-eskolan ere unibertsoa lantzeko jardueraren bat egiten dute, 5. mailakoak lurreko koordinadak, latitudea eta

longitudea lantzen ari dira. Eta 4. mailakoak, zenbaki erromatarrak lantzen ari zirenez, basora joan beharrean herrian barrena ibili ziren horien bila”, azaldu du Amundarainek.

Curriculumeko edozein eduki lantzeko aukera ematen dute naturak eta kanpoko espazioek. Egokitzapenak egitea da gakoa Añarbe Kalonje Lehen Hezkuntzako irakasleak dioenez: “Naturara egokitu behar duzu. Ez da kanpora liburuarekin joatea eta kanpoan jarraitzea, baina liburuko edukiak landu ditzakezu. Batzuetan nahi gabe, gainera. Basoan elkartzen garenean atera egiten zaie; ez diezu kontatu behar hostoak erortzen direla. Haiek galdetzen dute; horrek hostoak dituela, besteak ez, zer gertatu ote zaion, agian tximistak jo duela... Eta pentsatzen hasten dira hosto berriak aterako ote diren, ez diren aterako...”. Ideia horrekin bat egin du Amundarainek: “Iaz, adibidez, egundoko kontzertua antolatu zuten 2. mailakoek makilak hartuta. Musika lantzen aritu ziren agian ordu eta erdiz eta hura ez genuen guk bultzatu”.

Baina irakasle taldeak soilik ez, gurasoek ere presta-

GAIA: BASO-ESKOLA EREDUA

Kanpoan asko dago ikasteko

kuntza jaso dute Zaldibian: “Guraso eskolak proposatu zuen egiten ari ginena ulertzeko saio batzuk egitea eta iaz bi saio egin zituzten Ekoguneko teknikariek. Hitzaldia eskaini zieten eta gero saio praktikoak egin zituzten. Erabiltzen ditugun hiru eremuetara joan ziren eta familiarrean egin zituzten baso-eskolako jarduerak”.

Pandemiaren etorrerarekin guraso batzuek kanpora gehiago ateratzeko eskaera egin zuten: “Bultzada bat izan da, zeren egoera horretan kanpora ateratzea justifikatuagoa zegoela zirudien”, dio Amundarainek. Eta berarekin bat egin du Maite Garmendia Haur Hezkuntzako irakasleak ere: “Guraso batzuei kanpora ateratzea denbora galtzea dela iruditzen zaie. Eguna jolasean pasatzen dutela eta lanean noiz hasiko ote diren galdetzen dute. Pandemiak orokorrean ez digu batere lagundu, baina horretan lagundu zuen”.

Lehen Hezkuntzan justifikatu egin behar izaten dute, kanpora ateratzea Amundarainen hitzetan: “Beti ibili behar dugu egiten duguna argudiatzen eta erakusten. Gurasoei eta batzuetan baita geure buruari ere! Inertzia oso indartsua da eta helburuak betetzen ari ote garen galdetzen diogu geure buruari. Kanpoan edo basoan ari garenean badirudi gehiago justifikatu behar dugula curriculumean ageri diren helburuak lortzen ari gare-

la edo konpetentziak lantzen ari garela. Jarduerak eta proposamenak probatzen, sortzen eta ikasten ari gara, baita irakasleok ere. Lehen Hezkuntzan, batez ere, antzeko egitasmoen eredu gutxi ditugu eta hori faltan botatzen dugu. Berez, kanpoko espazioan etengabe ari dira edukiak lantzen eta, gainera, kanpoan edo barnean oso modu desberdinean egoten dira haurrak”. Taldeko harremanak modu berezian lantzen dira eta "norbera izaten ikastea" konpetentzia lantzeko gune aproposa da Baso-eskola.

Garmendiak harremanak nola aldatzen diren azpimarratu du: “Lagunarte desberdinak egiten dituzte. Gela barruan elkartzen ez diren horiek kanpoan elkartzen dira, afinitateak aldatzen dira. Elkarrri asko laguntzen diote. Kanpoko espazioak ekarpen handia egiten dio elkarlanari eta psikomotrizitatea asko lantzen dute. Bost urteko gelan, esaterako, edonor igotzen da zuhaitz batera bakar-bakarrik”.

Era berean, ingurunea txiki-txikitatik ezagutzen dutela azpimarratu du Garmendiak: “Gure umeez, adibidez, jada badakite zein den osina eta zein ez, eta ez zaie bururatzen osin artean ibiltzea”. Amundarain: “Lehen Hezkuntzan hainbat landare lantzen dituztenerako, ezagunak dituzte. Ez dira liburuan agertzen den



urruneko zerbait. Eta ingurumena zaintzeko eta klima aldaketarekin sentsibilizatzeko modurik onena da naturan eta lagunduta egotea, natura eta ingurumena zaintzeko jarrera zabaldu dadin. Beraz, ez da soilik ongi pasatzea”. Landareak soilik ez, animaliak zaintzen ere ikasten dute Garmendiak adierazi duenez: “Trikuak, igelak, zapaburuak, katagorriak... ikusten ditugu. Arratoiak ere ikusi izan ditugu. Zizareak ikusten dituztenean, kontu handiz ibiltzen dira orain. Xomororen bat ikusiz gero, lehen hil egiten zuten”. “Orain, berriz, etxeak egiten dizkiete eta horrelakoekin ikusten dugu pixkanaka naturaren aldeko kontzientzia pizten zaiela”, gaineratu du Kalonjek.

Errealitatea bertatik bertara

Edozein herriri bizitza handia ematen dio haurrak kaleran ibiltzeak eta eskola orduetan umerik ez ikustea tristetara diote. Amundarain: “Lau paretan artean errealitatea erakusten diegu baina errealitatetik aldentuta, eta barruan azaltzen diegu kanpokoak nolakoak den. Errealitatea ezagutzea eta bizitzea oso garrantzitsua da. Zuhaitzak, landareak eta animaliak lantzen ari bagara eta horiek eskola inguruan aurki baditzaiegu zentzuzkoena kanpora ateratzea da, bertatik bertara ezagutzea eta ez argazki edo pantaila bidez soilik”. Garmendiak jarraitu du: “Orain katiuskak jantzi eta putzuak zapaltzera ateratzen gara. Garai batean ez zitzaigun burutik pasa ere egiten umeei putzuetan sartzen erakustea. Kontrakoa: ez sartzeko esaten genien. Baina orain putzuak zapaltzen ditugu eta lokatzetan eserita jolasten gara. Berdin du, gero aldatuko gara, Haur Hezkuntzako gela guztietan ur beroa dugu, gainera. Guraso batzuentzat astakeria da lokatzetan zikintzera etortzea eta batzuk kexatu egiten dira. Pedagogia egin behar izaten dugu”. Lokatzak eta zikintasunak sortzen duten kezka hori murrizteko galtza iragazkaitzak erabiltzen dituzte ikasle guztiek.

Gauza berriak ezagutzeko eta ikertzeko grina bultzatzen du naturarekiko harremanak eta Garmendiak jarri digu horren adibidea: “Gaur bi ikasle entsaladak egiten aritu dira belarrekin eta une batez konturatu dira eskuetan



oso usain txarra zutela. Aurrerago ziur deskubrituko dutela zein diren gaizki usaintzen duten belar horiek”. “Bai, gainera, zentzumen guztiak aktibatzen dira. Gelan ez da halakorik gertatzen; plastilinak usaina izan dezake baina usain kimikoa da”, gaineratu du Amundarainek. Abiatu duten esperientziarekin pozarren daude Lardizabal eskolakoak. Ikasleengan sortzen duen onura begi-bistakoa da baina irakasleei ere naturarekin harremanetan izateak on egiten diela dio Amundarainek. “Ordezkoie eta praktiketan etortzen direnei ea zer moduz galdetzen diedanean, hemengo umeei zorte handia dutela esaten didate. Eskola toki erakargarria eta alai bihurtzen dute halako jarduerak. Hala ere, irakasle batzuek harriduraz hartzen dute proiektua eta bakarren batek baita kezka ere”, esan du Garmendiak. Egitasmoarekin aurrera jarraitzeko asmoa dute, baina baliabide gehiago beharko lituzketela azpimarratu dute guztiek. Hala zehaztu du Garmendiak: “5 urteko gelan 22 haur ditut, tutore bakarra naiz eta lan pertsonaletarako ditugun orduetatik atera behar izaten dugu denbora. Hezitzaileen aldetik ahalegin handia eskatzen du horrek ikasturte osoan”.

“Beti ibili behar dugu egiten duguna argudiatzen eta erakusten. Gurasoei eta batzuetan baita geure buruari ere! Inertzia oso indartsua da”

Eider Amundarain, Lardizabal eskolako zuzendaria eta irakaslea



Argazkiak: Marisol Ramirez / Foku

“Prozesu hau oso inportantea izan daiteke gure ereduera erakitzeko”

ELKARRIZKETA: PELLO OTXANDIANO

EH BILDUKO PROGRAMA ZUZENDARIA

Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Hezkuntza Hitzarmenaren prozesuan buru-belarri murgilduta aritu da hasieratik Pello Otxandiano (Otxandio, 1983).

Telekomunikazio Ingeniaritzan doktorea da eta EH Bilduko programa zuzendaria. Duela 16 urte ondu zen Euskal Herriko Hezkuntza Akordioan parte hartu zuen eta urte hauetan denetan jarraipen estua egin dio hezkuntza arloan egosi den guztiari. Talaia horretatik eta urteetan bildutako esperientziatik hitz egiten du, herri

ikuspegitik begiratzuz, gizartearen aldaketei adi, hezkuntza eragileen mugimenduei so eta ikastetxeetan gertatzen denari erne. Argi dio hezkuntza hitzarmena behar dela egiturazko arazoei aurre egiteko, eraldaketa pedagogikoa gauzatzeko eta euskal hezkuntza eraikitzeke. Orain, alderdi politikoek lortutako adostasuna gizartera eraman behar dela azpimarratzen du. Norabidea adostu eta elkarlanerako garaia dela dio, ilusioz eta indarrez: “Aukera hau ezin da galtzen utzi”.



Zergatik jo behar da “historikotzat” EAJK, EH Bilduk, PSE-EEk eta EP-IUK lortutako Hezkuntza Akordioa?

Lehenengo eta behin, horrelako adostasun maila ez delako ohikoa inon, ezta Europan ere, eta egiatan, hemen ez delako inoiz gertatu. Bigarrenik, ez delako edozein gai; ez gara ados jarri koronabirusaren krisiari aurre egiteko, baizik eta herri eraikuntzan oso inportantea den gai batean. Hezkuntzatik herri oso bat pentsatu eta definitu daiteke. Beraz, horrelako hitzarmen batekin norabide jakin bat ematen bazaio, —eta kasu honetan Araba, Bizkai eta Gipuzkoako hezkuntzari ematen zaio—, herri honen zati honetako hezkuntzaren garapenari eta eraikuntzari begira gauza ugari definitzen dira.

Bestetik, uste dut historikotzat jo daitekeela 93ko esperientziatik gatzelako. Orduan haustura politikoa eta soziala gertatu zen eskola publikoaren eta planteamendu hartatik kanpo geratu zirenen artean. Eta orain, garai hartatik eratorri zena gaintzeko urrats bat egiten ari gara eta ate asko ireki daitezke. Zeren planteamendua sistema osoa arautzea eta sistema osoa norabide bateratuan garatzea da.

Batetik, historikoa eta, bestetik, beharra. Zergatik behar da Hezkuntza Ituna une honetan?

Hiru arrazoi nagusi aipatuko nituzke: egiturazko arazoei aurre egiteko beharra, eraldaketa pedagogikoaren premia eta euskal hezkuntza eraikitzeke beharra.

Egiturazko arazoei dagokienez, hezkuntza sisteman egiturazko arazo edo akats batzuk daukagu eta horietako bat demografikoa da. Jaiotze tasaren beherakadagatik ikastetxe asko itxi egin beharko dira eta prozesu hori ez bada modu ordenatuan egiten, gatazkatsua eta traumatikoa izango da. Bigarrenik, jatorri eta klase segregazioaren gaia dago. Azterketa guztiek diote geroz eta gehiago direla kanpotik datozen ikasleak eta hori ez bada ongi kudeatzen kohesio soziala apurtuko da. Eta hori herri gisa guretzat sekulako arazoa da, zeren ez baldin badago kohesio sozialik ez dago herri eraikuntzarik. Ezin daiteke herri bat eraiki gizartea zatitua edo segregatua baldin badago. Eta hirugarren aldagaia euskalduntzean gertatzen ari den atzerakada da eta horren barruan ere aldagai asko daude. Egia da D ereduak asko egin duela aurrera eta hiztun berriak daudela, baina

bestetik, digitalizazioaren inpaktua dago. Sozializazio espazio berriak daukagu, asko digitalak dira eta hor euskararen presentzia askoz urriagoa da. Beraz, horrelako egiturazko arazoei aurre egiteko itun bat beharrezkoa da.

Bigarren arrazoi nagusi gisa eraldaketa pedagogikoaren premia aipatu dut. Gero eta gizarte konplexuagoa daukagu eta iraultza bat behar da pedagogian, metodologietan eta abar hainbat aldagai txertatu behar direlako: digitala, krisi klimatikoaren testuinguruan nola hezten diren pertsona kritikoak, testuinguru historikoa kudeatzeko gai direnak...

Eta hirugarren arrazoi nagusia euskal hezkuntzaren eraikuntzan fase berri baterako urratsa egin behar dugula da. Orain arteko talkak, ezin ikusiak, antagonikotzat jo diren posizioak... gaintitu behar ditugu. Halako mundu konplexu batean, herri gisa edo indarrak batzen ditugu edo bestela ez daukagu etorkizun onik. Ez baldin bagara gai gure hezkuntzaren inguruan norabide partekatua markatzeko, gaizki goaz. Horregatik ere behar da hitzarmena: behingoz gure herri gaitasuna norabide komun batean jartzeko eta herri honek zer hezkuntza sistema behar duen pentsatzen hasteko, gure ezaugarrien eta

aukeren arabera. Nazio estatuen eta Espainiaren eskola eredu apurto eta geuretik pentsatzen hasi behar dugu: deszentralizaziotik, komunitatearen parte-hartzetik eta abar.

Uste duzu badagoela gure hezkuntza sistema osorik birplanteatzeko eta arautzeko gaitasunik?

Zalantzarik gabe. Beste atal batzuetan eztabaida dezakegu; esate baterako, ezin gaitetzke izan burujabe % 100ean energetikoki petroliorik ez daukagulako, eolikoak eta eguzki plakak jarri beharko genituzkeelako leku guztietan eta ezin dugulako, eta horrez gain gauza asko beste eskala batzuetan arautu behar direlako. Baina hezkuntzaren kasuan, herri honek badauka gaitasuna bihar bertan hezkuntza prozesua osorik antolatzeko eta arautzeko.

Zertarako behar dugu LOMLOE? Guk ituna egiteko prozesu guztian ez dugu kontsultatu, ez da erreferentzia bat guretzat. Irailean ezarriko zaigu, baina ez dugu horren beharrik geurea antolatzeko. Beraz, zer hezkuntza eredu behar dugun eztabaidatu behar dugu eta kohesio handia eraiki behar da norabidearen inguruan eta etorkizuneko ikuspuntuaren inguruan. Behin norabidea izanda, hori arautuko duen lege bat behar dugu, eta ez bada kabitzen egungo estatus politikoan, hezkuntza arautzeko konpetentzia eskusibo bat aldarrikatu beharko dugu. Guk buruan daukagun sistemaren eraikuntzak gaur egun ez daukagun eskumen maila bat eskatuko du segur aski atal askotan. Katalunian gertatu zen; hango legeak indarrean jarraitzen du, baina artikulu batzuk [Espainiako] Konstituzionalak baliogabetuta daude. Orduan, nik uste dut eztabaida hori ere helduko dela. Burujabetzaren debatera hari desberdinetatik heldu behar da eta horietariko bat hezkuntzarena da.

Alderdi nagusien artean adostasuna lortu duzue, baina nola ikusten dituzu sindikatuak eta hezkuntza eragileak? Itunari egin dizkioten kritikak, kontrako adierazpenak eta mobilizazioak ikusita, norabide

bakar hori marrazteko prest ikusten dituzu?

Azken 30 urte hauetan EAEko hezkuntzaren eztabaida guztiz polarizatuta egon da, eta orain, nik uste dut, helburu partekatatu baten alde elkarrekin lanean jartzeko aukera badaukagula.

Badago mesfidati dagoen jendea, ados, baina bermeak denon artean eraiki ditzakegu. Ituna egiteko prozesuan hezkuntza komunitateari ez zaiola entzun esan zaigu; eta nola egiten da hori elkarren kontra ari badira euren artean? Ez dela parte hartzerik egon eta langileen bizkar egin dela esan da, eta hori ez dut partekatzen inondik inora. Aitzindaria izan den prozedura parlamentario bat egin da eta ezer ez da ixten orain. Gainera, eragile batzuek ezin dute monopolizatu hezkuntza komunitatearen ahotsa. Sindikatuek, adibidez, ordezkatu ditzakete langileen interesak momentu batean, baina hezkuntzari buruzko eztabaida askoz ere zabalagoa da eta hor beste eragileei ere entzun behar zaie eta haiengandik ikasi. Uste dut horretarako espazio bat ireki behar dela.

Hemen inork ez dauka egia osoa, denok gaude baldintzatuak eta kontziente izan behar dugu denek dituztela interes korporatiboak, alderdi politikoei eta hezkuntza eragileek. Orduan, bakoitzak esan dezala berea, baina besteek esateko daukatena entzunez. Eta egin dezagun eztabaida lubakietatik aterata. Nik uste dut norabide partekatatu horretan jartzen baldin bagara, posible dela jauzi handi bat egitea.

Denaren kontra ere ezin daiteke egon. Noizean behin zerbaiten alde ere... Dena ezezkoan jartzeak desaktibatu egiten du. Joseba Sarrionandiak esaten du banderizoen herria garela. Nik uste dut ez gaudela kondenatuta banderizoen herri bat izatera eta posible dela adostasun handiagoetara iristea. Zeren gauza batzuetan ez gara ados egongo, baina beste gauza batzuetan uste duguna baino adostasun handiagoak dira posible. Eta ados bagaude notizi ona da, jendeak notizi onak ere behar ditu.

Horrez gain, eztabaidak oso po-

“Alderdi politikoen arteko itunak orain eztabaida espazio sozialera eramateko balio behar du”

“Sistemaren osotasuna arautzeko planteamendua egiten da Euskal Hezkuntza Zerbitzua sortuz”

“Ez dago administrazioaren titularpean egon beharrik zerbitzu publiko bat eskaintzeko eta, beraz, Euskal Hezkuntza Zerbitzuan egoteko”

“Ni ez nau hainbeste penatzen 'murgiltze' hitza ez agertzeak, baldin eta helburua argi badago”

“Ezin daiteke herri bat eraiki gizartea zatituta eta segregatua baldin badago”

larizatuta daude sektore batzuetan, baina nik uste dut horren azpitik, komunikabideetan ikusten denaren azpitik, beste korrante bat dagoela: eskoletan ikusten dena, jendeak nahi du. Egungo ereduarekin arazoak dituzte eta horiei soluzioak emateko konpromisoak jasotzen dira itunean. Horregatik uste dut posible dela adostasuna lortzea norabidean, luze-rako begirada baten inguruan.

Alderdi politikoen arteko adostasun honek orain eztabaida espazio sozialera eramateko balio behar du.

Nola eramango da eztabaida gizartera?

Hasteko, lege batek ez du ezer bermatzen. Historikotzat jo dugun hitzarmen hau tresna bat da, baina ez da helburua. Itunak hezkuntza komunitatean norabide baten inguruan ilusioa eta bultzada sortzeko balio behar du. Hori gabe hitzarmenak ez du ezertarako balio. Eragile guztiek jokatu duten rola eta beteko duten funtzioaren arabera egongo da horren garapena eta denek birpentsatu beharko dute hezkuntza proiektuen garapenean izan behar duten rola.

Alderdi politikoen arteko ituna espazio sozial batean jarri behar da eta ariketa sakon bat egin. Laster dossier bat entregatuko zaio Legebiltzarreko ponentzian parte hartu zuen eragile bakoitzari dokumentazio guztiarekin. Hezkuntza hitzarmena mahai gainean jarrita, hor dauden gako guztien inguruan hitz egin behar da, eztabaidatu, zer adostasun dagoen ikusi, beste ekarpenik dagoen ikusi... eta hori jaso egin behar da legearen eztabaidarako. Legearen aurreproiektu bat egongo da orain, baina hori aldatu daiteke emendakinen bidez, eta aldatu behar da eztabaida parlamentarioan.

Eztabaida legea atera arte luzatu behar da eta urtebete baino gehiago dago debate ahaltso bat egiteko. Horrek aberastu egingo du, balio du, eta aukera hori ezin da galtzen utzi. Orain da momentua.

Zer ekar dezake itunak edo legeak ikasleentzat, irakasleentzat eta



ikasleentzat?

Ikasleentzat iraultza izango dela uste dut. Hezkuntza proiektuak ikasleentzaren ingurunearen arabera eta bertako aukerak baliatuz eraikitzea planteatzen da. Komunitatearekin batera egingo dira, herri proiektu batean txertatuz. Hezkuntza komunitatea bihurtuko da prozesuaren protagonista, berak garatuko du eta berak edukiko du prozesuaren kontrola. Behetik gora egingo da, ez orain arte bezala goitik behera.

Horrek irakasle talde ahaldunak eta gaituak eskatzen ditu, eta lidergo pedagogikoa hartu dezaketen zuzendaritza talde ahaltsoak. Beraz, formazio gehiago eskaini behar zaie. Irakasle motibatuentzat aukera berriak irekiko dira esperimintatzeko eta euren rola birdefinitzeko.

Eta ikasleentzat ere itunak iraultza bat ekarri beharko luke. Ikaslea da erdigunea eta irakaste-prozesu guztia ikasleak egin behar duen ibilbidean dago oinarrituta. Adibidez, ratioen kasuan, ikaslea erdigunean jartzen bada, krisi demografikoa aukera bat izan daiteke ratioak jaisteko.

Ekosistema oso bat behar da hori egiteko eta nik uste dut badagoela.

Ekosistema horretan sartzen ditu

itunak udalak eta hezkuntza ez formala. Hori ere berrikuntza da.

Bai, Hezkuntza Hitzarmenari lotutako eztabaidetan lehen ez zeukan erdigunea hartu du. Gakoa da udalek eta hezkuntza ez-formaleko eragileek zer rol beteko duten herri bakoitzeko hezkuntza proiektuaren eraikuntzan, zein izango den herri bakoitzeko proiektu hezitzailea eta inportantea da nola txertatuko den eskola edo eskolak proiektu hezitzaile horren baitan.

Esku-hartze komunitarioa egin behar da hezkuntza formala eta ez-formala elkartuz eta lankidetzara sustatuz. Hori herri mailan soilik egin daiteke eta udalek funtzio bat bete behar dute hezkuntzan. Eragile izan behar dira hezkuntzan tokiko administrazio gisa. Nik uste dut horrek erdigune argia hartu duela.

Herri hezitzaile horiek eraikitzeke sistema behetik gora pentsatu behar da aurrena. Eta gero, ikusi sistemak zer baliabide jarri behar dituen, nola antolatu behar den. Adibidez, jaitsiera demografikoarekin herri batzuetan eskola bakarra geldituko bada, eta gelditzen den hori Euskal Hezkuntza Zerbitzuaren parte den eskola baldin bada, ez da hain inportantea eskola hori administrazioarena den edo kooperatiba bat den. Inportantea

da zein den herri horretako proiektu hezitzailea eta nola dagoen txertatuta eskola hori proiektu hezitzaile horren baitan. Hori ez dadin izan prozesu gatazkatsu eta traumatikoa, alderantziz, prozesu baikorra izan dadin, esku-hartze komunitarioa gakoa da.

Euskal Hezkuntza Zerbitzua eta titularitatea aipatu dituzu. Korapiloo sorrarazi izan duen gaia da titularitatearena. Itunak irakurketa berri baterako atea ireki duela esan daiteke? Publikotasuna ulertzeko beste modu bat?

93ko Euskal Eskola Publikoaren legeak sistemaren erdia arautu zuen eta gero, dekretu bidez, eskola publikotik kanpo geratu zen sistemaren beste erdia arautu zen. Orain, sistemaren osotasuna arautzeko planteamendua egiten da Euskal Hezkuntza Zerbitzua sortuz. Hezkuntza zerbitzu publikoa eskaintzen duten ikastetxeak sartuko dira hor, titularitatea edozein izanda ere. Baldintza, konpromiso eta betebeharrak batzuk bete beharko dituzte Euskal Hezkuntza Zerbitzuaren parte izan nahi duten ikastetxeek, eta kontrol publiko bat izango dute.

Hori da gako nagusia eta egiturazko aldaketarik handiena, eta horrek eztabaida handia sortu du. Bateria-zearen aldeko aukera eginda, batzuk ulertzen dutena zera da: eskola itundu edo pribatuaren mesedera eginga dako zerbaite dela, eskola publikoari ematen zaion errekonozimendu bera ematen zaiola. Beste modu batera ere uler daiteke, ordea: kontzertazio unibertsala deitu duten hori bukatzea dela. Orain arte baldintza batzuk jarri zaizkie diru publikoa jasotzeko eta orain beste batzuk jarriko zaizkie. Joko-arau argiak egongo dira, denek bete beharko dituztenak zerbitzu horren parte izateko eta diru publikoa jasotzeko. Administrazioak bermatu behar du funtzio publiko hori, diru publikoa jasotzen duenak konpromiso argiak hartu behar dituela eta kontrol mekanismo zorrotzak egon behar dira.

Beraz, egiturazko urrats handiena zera da: bateratzearen aldeko planteamendua egiten dela. Hau da, ulertzen da Euskal Hezkuntza

Zerbitzu hori eman dezaketela titulartasun publikokoek, administrazioaren titulartasunekoak direnek eta pribatuak direnek ere, baldin eta betiere joko-arauak mundu guztiak errespetatzen baldin baditu. Ez dago administrazioaren titularpean egon beharrik zerbitzu publiko bat eskaintzeko eta, beraz, Euskal Hezkuntza Zerbitzuan egoteko.

Publikotasunaren irakurketa zabalagoa eginda iristen gara horra, publikotasuna herri bezala pentsatuta. Guk zer hezkuntza eredu nahi dugu? Horrek zer sistema eskatzen du? Eta nola antolatu daiteke sistema hori? Goazen funtzio publikoa zer den eta balio publikoa zerk ematen duen identifikatzera eta joko-arau garbiak jartzera horretarako. Eta eredu baldin bada eredu deszentralizatu, parte-hartzailea, komunitateak parte hartzen duena, hezkuntza zentroak autoantolatzen direna, autoantolatze eta beren burua gobernatzeko mekanismoak eta gaitasunak dituztenak, ez dugu zalantzan jartzen hori egin ezin daitekeen administrazioaren titularrak diren ikastetxeen bitartez. Baina beste era batera ere egin daiteke. Zergatik ez?

Segregazioa eta kohesio soziala serio hartu ditu itunak. Zertan ikus daiteke seriotasun hori? Zer neurri hartuko dira?

Gaia konplexua dela onartu behar dugu denok eta askotariko esku-hartzea behar duela. Norabide partekatutako baten bueltan lan asko egin behar da bai eskolan eta baita eskolatik kanpo ere, soluzio magikorik ez baitago.

Arazo handia dago eta leku askotan tentsioa muturrera iristen ari da. Kasu horietan kohesio soziala apurtzen da eta hori hilgarria da guretzat. Kohesio sozialik gabe ez dago herri-rik eta herririk gabe euskarak ere ez dakit zer etorkizun izan dezakeen. Kohesio soziala eta euskara elkarri lotuta doaz.

Horregatik, uste dut oso serio hartu behar dela, orain arte egin ez diren urrats batzuk egin behar direla eta itunarekin neurri zehatzak martxan jartzera goaz, bai ala bai, urgentziaz.

Neurri zehatzez gain, diagnostiko zorrotz bat egin behar da ikastetxez

ikastetxe esku-hartze eraginkorra egiteko eta hori Euskal Herrian posible da eskala maneagarria daukagulako: ikastetxe guztiak monitorizatu eduki ditzakegu, Hezkuntza Sailak banan-banan bisitatu ditzake ikastetxeak, zuzendariekin harreman zuzena eduki, bakoitzaren baldintzak eta komunitatea ezagutu, gurasoak eta ikasleak ezagutu... Eta behin diagnostikoa eginda planifikazio estrategiko bat egin behar da.

Ondoren, segregazioaren kontrako hitzarmen bat egiteko konpromisoa hartu da 2023rako, eskola komunitatearekin eta eragileekin batera.

Euskararen gaian kosta zaizue adostasuna lortzea. Azkenean ez da 'murgiltze eredu' aipatzen, 'euskarazko eredu orokortu' ere ez. Azken testua lorpenzat har daiteke? Konformatzeko modukoa da?

Kontua da eztabaida politikoan *murgiltze* hitzak konnotazio bat daukala eta ez duela adostasunerako biderik irekitzen. Adostu egin behar dugu nola izendatuko dugun guztiok eroso egon gaitzen, baina norabideak argia izan behar du eta aurrera egiteko balio behar du. Eta denok gaude ados aurrera nola eta nondik egin behar den. Ni ez nau hainbeste penatzen *murgiltze* hitza ez agertzeak, baldin eta helburua argi badago. Eta hor, “ezagutza praktikoa nahikoa” esaten den hori zehaztu da lehenengo aldiz; gutxieneko modura Europako B2 erreferentzia markoa ezarri da, estandarra da, eta badakigu hori zer den.

Argi dago horrek *murgiltze* prozesuetara eramaten gaituela praktikan. Ikastetxe bakoitzak bere hizkuntza proiektua egin eta garatu beharko du eta horretarako baliabideak jarriko dira, eta baita jarraipena egin, ebaluatu eta lagundu ere. Orain arte etxetik euskara gutxi zeukanari euskara gutxiago eman izan zaio; orain euskara gutxi daukanari gehiago emango zaio. Ikusteke dago hori garatzeko zer indar sozial egongo den, zer baliabide jarriko diren, nola egingo den bidea eta abar. Baina orain arteko egoera gainditzera goaz.

EKARPENAK

HEZKUNTZA AKORDIOA

Hezkuntza Akordioaren oinarriak eta gakoak adostuta geratu dira

Eusko Legebiltzarreko alderdi nagusiek adostutako Hezkuntza Hitzarmenak lege bihurtzeko prozesua hasiko du hurrengo hilabeteetan. "Euskal hezkuntzaren eraldaketarako oinarrien akordioa" bozkatu eta onartu ondoren, dokumentu horri lege forma emango zaio. Adostutako oinarriak egongo dira abiapuntuan eta prozesu horrek bere bidea egin bitartean, espazio sozialak ere irekiko dira ekarpenak egiteko eta eraikitzen jarraitzeko.

Euskal hezkuntzaren eraldaketarako oinarriak adostu dituzte EAJ, EH Bildu, PSE-EE eta EP-IU alderdi politikoen martxoaren 18an eta egiten diren planteamenduekin Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako hezkuntza sistemari andamio berri bat jartzen zaio. Egiturazko hainbat aldaketa dakartza.

Bateratzeko planteamendua Sistema batzearen aldeko planteamendua egiten da eta Euskal Hezkuntza Zerbitzua eratuko da horretarako. Ikastetxe publikoek eta kontzertatuek osatuko dute zerbitzu hori, administrazioak finantzatuko ditu eta bertan sartzeko ezinbestean bete beharreko baldintza hauek izango dituzte:

- Lege berriak definituko dituen irizpideak errespetatu behar dituzte ikastetxeek hezkuntza eta hizkuntza proiektuak egiten dituztenean eta curriculumean.
- Hizkuntzari dagokionez, lege berriak definitutako helburuak erdie-

tsi beharko dituzte beren ingurune soziolinguistikoak eskatzen duen neurrian.

- Parekidetasuna bermatzeko, ezin dute sexu-segregaziorik onartu eta sexu zein genero askatasuna bermatzeko konpromisoa hartuko dute.
- Laikotasuna ardatz hartuta Madrillgo Lege Organikoak ezarritako minimoa izango da ikastetxeek Erlijio ikasgaiari eskaini diezaioketen maximoa eta adoktrinamendurik ez dela izango bermatuko dute.
- Hezkuntza proiektuaren gidaritza demokratikoa bermatuko dute komunitatearen partaidetza demokratikoa ahalbidetuz.
- Hezkuntza eskaintzaren planifikazioa egiteko tokian tokiko hezkuntza proiektuetan eta organo arautuetan parte hartuko dute ikastetxeek.
- Segregazioaren kontrako konpromisoa hartuko dute eta hala jasoko da hezkuntza proiektuan, eta hezkuntza administrazioak zein Tokiko Hezkuntza Kontseiluek zehaztutako neurriekin bat egingo dute.
- Administrazioaren jabetzakoak ez

diren Euskal Hezkuntza Zerbitzuko ikastetxeek langileen kontratazio prozesu garden eta demokratikoak garatuko dituzte eta horretarako bermeak ezarriko ditu hezkuntza administrazioak.

- Ikastetxeen azpiegiturak dago-kion titularrarenak dira. Horrez gain, tokiko hezkuntza kontseiluek adostutako bestelako erabilerak izan ahaliko dituzte.

- Irabazi asmo gabekoak izan behar dute Euskal Hezkuntza Zerbitzuko ikastetxeek.

Irizpide hauek modu progresiboan betetzeko konpromisoak hartzen dituzten ikastetxeek finantzaketa publikoa jasoko dute eta, ondorioz, Euskal Hezkuntza Zerbitzuko partaide izango dira.

Baldintza eta konpromiso hauek betetze direla ziurtatzeko hezkuntza administrazioak beharrezko kontrol mekanismoak zehaztuko ditu.

Horrez gain, hezkuntza administrazioak finantzaketa publikoaren gardentasuna bermatzeko, baliabide publikoak jasotzen dituzten ikaste-

txe guztiak auditatuak izango dira Jaurlaritzaren Auditoria Planaren barruan.

Haur Hezkuntza derrigorrezko etapa ez bada ere, eskaintza unibertsalekoa, kalitatezkoa, bideragarria eta doakoa izango du. Horretarako, Haurreskolak Partzuergoa berrindartuko da, eskaintza unibertsaleko, kalitatezko eta doako zerbitzu publiko bilakatu dadin.

Antolaketa deszentralizatua

Egitura berria garatzeko, sistemaren antolaketa behetik gora planteatzen da eta **eskola-antolamendu berri eta deszentralizatua** aurrera eramateko gako batzuk zehazten dira:

- Hezkuntza komunitatea: ardatza ikaslea izanik, ikasle bakoitza bere gaitasunaren gehiengora iristen dela bermatzea da helburua. Ikaslea sostengatu eta egunero hezteko prozesu honetan, laguntzaile izango dira, eskolaz gain, familiak eta eragile soziokulturalak. Denek parte hartuko dute ikastetxeko hezkuntza proiektua egiterakoan.
- Ikastetxeetako zuzendaritzen ahalduntzea eta lidergo pedagogikoa: zuzendaritza sendoa behar du ikastetxe orok, eskola-komunitatea estrategia irmo batez gidatuko duena, erabakiak hartzeko autonomia izango duena eta lortu beharreko emaitzekiko erantzukizuna bere gain hartuko duena.
- Irakasleen hasierako eta etengabeko prestakuntzari arreta handiagoa jartzen zaio irakasleak ahalduntzea xedetzat hartuta.
- Ikastetxeen artean lankidetzagobernantza bultzatuko da eta hainbat erakunde sortuko edota eraberrituko dira: Euskadiko Eskola Kontseilua, Euskal Eskola Publikoaren Kontseilua, Ikaskuntzarako Berrikuntza Zentroa, Ikuskaritza, Euskararen Ikaskuntzarako Institutua...
- Administrazioen arteko hezkuntza-kogobernantza bultzatuko da. Udalek bereziki eginkizun sakona har dezakete matrikulazio prozesuan, onarpen protokoloak familiengana hurbiltzeko, azpiegiturak indartzeko, elkarbizitza sustatzeko, kohesioa bultzatzeko sareak sortu edota elikatzeke, euskararen erabi-



lera sustatzeko eta, azken batean, eskola komunitatea sendotzeko.

- Tokiko Hezkuntza Kontseiluak eratuko dira antolamendu hori bideratzeko.
- Hezkuntza ez-formaleko eragileen parte-hartzea eta elkarlana bultzatuko da.

Segregazioaren aurkako neurriak

Egitura berrian **jatorri eta klase segregazioaren aurka borrokatzeko** hainbat jarduera-plan zehaztu dira. Batetik, elkarrizketa aktiboko prozesu bat bultzatuko da hezkuntza komunitatearekin, **2023an eskola-segregazioaren aurkako itun bat** lortzeko helburuarekin. Urgentziak 13 neurri ere zehaztu dira, besteak beste:

- Ikasleen onarpenari buruzko araudia eguneratzea, ikastetxea askatasunez aukeratzearekin konbinatuz eta baremazio-irizpideak birpentsatuz (besteak beste, errenta baxuen pisu handiagoa, hurbiltasunaren pisua, puntu “dinamikoa” ezabatzea, puntu “diskrezionala”, etab).
- HKI Hezkuntza Konplexutasunaren Indizea izaera publikoz arautzea.
- Ikasturtea hasita hasten diren ikasleen eskolatzea kudeatzea, Hezkuntza Sailburuordetzak ezarritako irizpideei jarraituz, ikasle kalteberen segregazio-indizea ez handitzeko moduan, beren udalerriko edo eremuko batezbestekoa baino segregazio-ehuneko handiagoa duten ikastetxeak alde batera utzita, eta lehentasuna emanda taldeko edo irakasleko ikasle gutxiago dituzten ikastetxeei, matrikula bizia modu orekatuan kudeatze aldera.
- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei buruz indarrean dagoen

araudia eguneratzea, aniztasunari erantzuteko esparru berrira egokituz.

- Eskola-plaza baten kostuari buruzko azterlana sustatzea, irakaskuntzaren doakotasun eraginkorrerantz aurrera egiteko tresna gisa.
- Irakaskuntzaren doakotasuna behatzeko eta irakaskuntzagatik kuotak kobratzeko praktika ireki edo estali oro desagerrarazteko beharrezkoak diren kontrol-mekanismoak aktibatzea.

Euskararen helburuak finkatuta

Euskara ardatz duen sistema elea-nitza proposatzen da, eta honako gaitasun-mailak ezarriko dira gutxieneko helmuga bezala: bi hizkuntza ofizialetan Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B1 LH amaitzerakoan eta B2 DBH amaitzerakoan, European ohikoa denez; atzerritar hizkuntzan, A2 eta B1 maila.

Egindako ebaluazioetan ikusi da eskuratutako euskara-maila ez dela helburuetara heltzen eta horren arrazoiak aztertuko dira, ikastetxeak hobekuntzen bidez maila horietara heldu daitezkeen neurriak har daitezkeen. Hobetze bidean, ikerketa eta berrikuntza ezinbestekoak dira eta planak, epeak eta baliabideak zehazterakoan, ikastetxeen abiapuntuak eta tokian tokiko egoera soziolinguistikoak oso ezberdinak direla kontuan hartu behar da.

Helburuak ikastetxe bakoitzaren hizkuntza proiektuan egituratuko dira, legeak zehaztutako esparru komun baten barruan. Hizkuntza proiektuaren jarraipena egingo da eta, hala badagokio, egokitu egingo da, hizkuntza helburuak lortzea eta gainerako gaitetan gaitasunak eskuratzea bermatzeko.

ESPERIENTZIAK 1

BELAUNALDIARTEKOTASUNA LANTZEN

“Ederra da bizitza!”

Leioako Askartza-Claret ikastetxeak eta Zamudioko Truiondo adinekoen eguneko zentroak belaunaldi arteko proiektu bat dute abian: Haur Hezkuntzako 4 urteko haurrak eta adinekoak hamabostean behin komunikatzen dira, baliabide teknologikoen bidez. Elkarren ezagutza sustatzeaz gain, bizitzaren prozesu naturala lantzeko esperientzia paregabea izaten ari da.

Adinen arabera segmentatuta daukagu gizartea. Sendikoekin harreman pixka bat izaten badute ere, familiarik kanpo, adin txikikoek harreman gutxi izan ohi dute adin handikoekin kalean edo plazan,

eta beraz, baita alderantziz ere. Zamudioko adinekoen Truiondo egoitza-zentroak zubi bat eraiki zuen propio, adinekoek eta gazteek elkarrekin topo egin zezaten. Bizkaiko ikastetxeko DBHko 2. mailako ikasleekin hasi zituzten

topaketak: *Nire bizitzako historia* proiektua abian jarri zuen, ikastetxearen laguntzarekin, Eider Ibañez zentroko langileak: “Bi belaunaldien arteko elkargune bat bilatzea zen proiektuaren helburua; alde bakoitzak besteari buruz izan



zitzakeen aurreiritzi negatiboak deuseztatzea zen gure nahietako bat”. Gero, denborarekin, bertan behera gelditu zen harremana, baina Ibañezek adinekoen egoitzako atea irekitzeko grinari eusten zion, eta garairik zailenetan zubi berri bat eraikitzeak aukera ikusi zuen COVID-19aren pandemia betean, itxialdiaren ondoren: “Zergatik ez eraiki beste zubi bat, adin nagusikoen eta, kasu honetan, adin txikienekoen artean? Zergatik ez ezagutarazi eguneko zentro batean dauden pertsonen errealitatea, eta zergatik ez itzuli adinekoei haurrek dakarten zorientasuna?”. Pentsatu eta egin: Leioako Askartza-Claret ikastetxeari ireki zizkion Zamudioko Truiondo zaharren egoitzako atea.

Askartza-Claret ikastetxeko Haur Hezkuntzako 3 urtekoen gela bat eta Zamudioko Truiondo adinekoen eguneko zentroa baliabide teknologikoen bidez hasi ziren harremanetan, joan den ikasturtean. Hain zuzen ere, Eider Ibañezen semearen gelarekin hasi ziren, eguneko zentroko erabiltzaile baten alaba, Alazne Ugartetxea, gelako andereñoa zela baliatuta. Gainera, eguneko zentroko beste erabiltzaile bat HH 3ko Luken haurraren birramona zen. Bizitzako gorabeherak baliatu zituzten, bizitza eta bizitzaren iragatea ardatz dituen belaunaldi arteko proiektua martxan jartzeko. “Hasierako unetik ikusi genuen, bai nik neuk eta baita ikastetxeko Haur Hezkuntzako arduradunek ere, interesgarria zela honelako proiektu bat, ez soilik adinekoentzat, baita haur txikiarentzat ere —azaldu dio **Hik Hasiri** Ugartetxeak, zeina, Askartza-Claret ikastetxeko irakasle izateaz gain, **Hik Hasiko** kide ere baden—. Berehala programazio bat prestatu genuen, eta, denborarik galdu gabe, elkarrekin lanean hasi ginen”.

Hamabostean behin, adineko pertsonak eta HH 3ko haurrak bideodei bidez elkarrekin komunikatzen hasi ziren, eta elkar ezagutzen, elkarrekin denbora pasatzen. Iazko ikasturteko ekintza gehienek izaera ludikoa izan



Belaunaldien arteko esperientzian parte hartu duten familiak eta Askartza-Claret ikastetxeko hezitzaileak. Ezkerreko argazkian, haurrak gimnasia egiten bideo bidez adinekoak ariketak egiten ikusten dituzten bitartean.

zuten: jolasak, bingoa, gimnasia... Pixkanaka, izaera kooperatiboagoko ekintzetara pasatu ziren. “Lanak trukatzeko garrantzitsua izan da elkar ezagutzeko eta konfiantza eraikitzeko; haurrek helduei begirako helburuekin egiten dituzte eskulanak, eta alderantziz, haurrei begirako helburuekin lan zehatzak egiteak motibazioa ematen die adinekoei; bi aldeentzat izan da motibagarri”, azaldu du Ibañezek. “Gelan musikal bat prestatzen ari ginela, adibidez, prestakuntza-lan horiek partekatu ditugu adineko pertsonekin; euren gaitasunen arabera, eskulan jakin batzuk eskatu genizkien; kasu honetan, materiala prestatzen laguntzeko eskatu genien, eta ondoren, material horrekin, antzerki bat eskaini genien beraiei”, adierazi du Ugartetxeak.

Ikaskuntza-zerbitzuen kasuan bezala, egiteko hori, nahiz eta txikia izan, helburu batekin egiteak, besteentzat egiteak, pedagogikoki daukan balioa nabarmendu du Ugartetxeak. “Kontua ez da gauzak egiteagatik egitea, ez haurren kasuan ezta adinekoen kasuan ere. Zertarako bat edukitze horrek dakar motibazioa. **Hik Hasi** egitasmoarekin Finlandiara egindako bidaiak pedagogiko batean, ikastetxe bateko plastikako gela ezagutzeko aukera izan nuen, eta

han ikusi nuen haurrak paparreko orratz soil batzuk egiten ari zirela; materialki oso sinpleak ziren, baina balioa ematen ziona helburua zen: hurrengo astean adinekoen egoitza batera egingo zuten bisitan, haur horietako bakoitzak adineko pertsona bati oparituko zion paparreko orratz hura. Helburuak ematen die zentzua gauzei, eta hori da gure erdua”.

Iaz helduentzat nahiz haurrentzat oso esperientzia aberasgarria izan zela ikusirik, aurten, eguneko

“Egunerokotasunaren zirimolan, zahartzaroa ez dugu ikusi ere egiten. Gizartean, ez da ikusgarritasun handia aitortzen zaion kolektibo bat, eta haien zaintza eta izatea aurrez aurre jarri dizkigu proiektu honek”

Natalia Diaz de Arcaya
(gurasa)

ESPERIENTZIAK: BELAUNALDIARTEKOTASUNA LANTZEN

egoitzako talde bera HH 4ra igaro diren hurrekin harremanetan dago ostera ere. Ikasturteko plangintza eta programazioa osatu dute Ibañezek eta Ugartetxeak, belaunaldiartekotasuna ardatz harturik. Hamabostean behin, gai baten inguruko ekintza bat garatzen dute elkarrekin, baliabide teknologikoei esker, eta komunikazioen tartean, lan bat prestatzen dute elkarrentzat. Programazioaren ardatzetako bat ezagutzaren transmisioa da. “Gelan gai bat lantzen ari garenean, adinekoen esperientzia baliatzen saiatzen gara, gai horri buruz duten ezagutza zabaltzeko. Adibidez, baserriaz aritu garenean, adinekoek eurei eskatu diegu, haurtzaroan baserrian bizi izan zirenei, zehazki, mundu hura nolakoa zen kontatzeko”, azaldu du Ugartetxeak. Oso aberasgarria da familientzat euren seme-alabek lekukotasun horiek lehen eskutik jasotzeko aukera izatea: “Bi belaunaldien arteko distantzia oso handia da; batzuk baserrian bizi izan ziren, ez telefonorik eta ez autorik ez zegoen garaiak ezagutu zituzten, eta besteek, gure seme-alabek, uste dute esnea tetrabriketik ateratzen dela. Beraz, esperientzia eta mundu horren berri jasotzea oso aberasgarria da haurrentzat”, azaldu du HH 4ko Luken hauraren aitak, Gorka Agirrek.

Haurrentzat zein adinekoentzat, esperientzia aberatsa

Agirrek amama Eider Ibañezekin izan zuen aurreko ikasturtean, Zamudioko adinekoen eguneko egoitzan, eta beraz, bi aldeetatik egokitu zaio esperientzia ezagutzea: “Esan dezaket esperientzia hau oso aberasgarria izan dela bi aldeentzat. COVID-19aren garaietan, oso zaila izan da haurrak euren birramamaren etxera eramatea, eta gure amamaren kasuan, oso pozgarria eta motibagarria izan da bere birbiloba lagunekin gelan jolasten edo ekintzetan parte hartzen ikusi ahal izatea”. Lukenen gelakide Martinen amak ere, Natalia Diaz de Arcayak, bi belaunaldien artean



Agate Deunaren omenezko kantaldia egin zuten Askartza-Clareteko haurrek Truiondo egoitzan, aurrez aurre.

eraiki den harremana oso ekarpen aberasgarria izan dela euren haurrentzat nabarmendu du: “Gure kasuan, ez daukagu harreman zuzenik eguneko zentroarekin, eta egia esan, hain nagusiak diren pertsonekin ere ez daukagu harreman esturik. Horrexegatik da hain berezia proiektu hau guretzat, gure semea normaltasun handiz gerturatu delako adineko pertsonen kolektibora. Harentzat, oso normala bihurtu da aitaita eta amama adinekoekin hitz egitea hamabostean behin; naturaltasun handiz bizi du adineko pertsonekin eraiki duten harremana, eta harentzat pantailaren bestaldean ikusten dituen pertsona horiek oso jende arrunta dira; gazteak izango balira bezala da harentzat. Guretzat, adineko pertsonen kolektiboari halako normaltasuna ematea garrantzitsua izan da. Inguruan adineko jendea badugu, baina ez da hain adin handikoa, eta kolektibo horretara gerturatzeko aukera ona izaten ari da eskolako proiektua”.

Programaturiko gaitegitik eta ekintzetatik harago, bizitzaren prozesu naturala bertatik bertara ezagutzeko parada izaten ari dira haurrak, aurreiritzirik eta taburik gabe: “Garrantzitsua da txiki-txikitatik bizitzaren prozesu naturala ezagutzea; haurrek ikusten dute badaudela adineko pertsonak, batzuek osasun arazoak dituztela, eta horietako batzuk hil egin direla

ere ikusi dute programan zehar”, adierazi du Ibañezek. “Ikusten dute adineko pertsona batzuk eguneko zentroan daudela, eta adineko horiek, haurrek ikastetxean bezala, eguna egoitzan igarotzen dutela, hainbat ekintza eginez, eta, han bazkaldu ondoren, etxera itzultzen direla; baina badaudela, baita ere, adin handiko beste pertsona batzuk, ondoan dagoen egoitzan bizi direnak, jada beren kasa beren etxeetan bakarrik bizitzeko gai ez direlako. Eta, proiektuak iraun duen bitartean, bajak egon direla ere ikusi dute, ezagutu dituzten pertsona batzuk hil egin direla”. Halako gertakariak jazo izan direnean, gaiaz izan ditzaketen kezkei buruz hitz egiteko baliatu dute proiektua ikasgelan. Hezitzailearen beraren aita hil da esperientzia hau gauzatzen ari ziren bitartean, eta, horren ondorioz, gelan langai izan dute heriotza hurrekin: “Nik bizi izan dudana neurrian, umeek ere bizi izan dute nire aitaren heriotzaren prozesua —kontatu du Ugartetxeak—: ospitaleko azken egunak, bisitak, zaintza, heriotza bera... Garrantzitsua izan da umeek galdetu ahala naturaltasunez erantzutea”. Gai horiek, ondoren, haurren etxeetara itzuli izan dira. “Martinen kasuan, interes handia dauka heriotzan, asko galdetzen du hiltzeko arrazoiei buruz, adibidez, eta ulertzen du berarekin harremanetan dauden aitona-amona

horiek heriotza gertu daukatela, bere aitona-amonek baino gertuago. Egunerokotasunean, gure familiaren eta gure lanaren zirimolan sartzen garenean, zahartzarora ez dugu ikusi ere egiten. Gizartean, ez da ikusgarritasun handia aitortzen zaion kolektibo bat, eta haien zaintza eta izatea bera aurrez aurre jarri dizkigu proiektu honek; bizitzaren parte da, eta prozesu hori guztia begien aurrean jartzea oso garrantzitsua izan da”, adierazi du Diaz de Arcayak.

Adinaz, bizitzaren higaduraz, zahartzaroz eta heriotzaz haurrekin naturaltasunez hitz egin ahal izateko, irakasleak hainbat euskarri pedagogiko baliatzen ditu, hamabostean behingo komunikazioen ondoren, ipuinak batez ere, baina baita abestiak eta bideoak ere. Eta, horren gainera, bizitzari sartzen uzten diote gelako egunerokoan.

Haurrek jasotzen dutena handia baldin bada, zer esanik ez adinekoei ematen dietena. Eguneko zentroan egiten dituzten ekintza guztien artean, parekorik gabea da haurrekin partekatzen duten belaunaldi arteko proiektuak ematen dien alaitasuna. Ibañezek dioenez: “Komunikazio bakoitzarekin, bizitza itzultzen diete haurrek adineko pertsona hauei. Bizipoza jasotzen dute. Motibazioa eta ilusioa nabarmenduko nituzke. Eskuartean

duten lan hori haurrentzat dela jakite horrek, helburu bat edukitze horrek, motibazioa ematen die aurrera egiteko. Adin handia dute, eta batzuek endekatze bat ere badute dagoeneko, kasu batzuetan kognitiboa den endekatzea, eta gauza asko ez dituzte gogoratzen; baina haurrekin duten hitzorduaz ez dira inoiz ahazten. Komunikazio-egunak beti hobekak dira bezperakoak edo ondorengoak baino, haurrek ematen dieten ilusio horri esker”.

Agate Deunaren bezperako kanta-eskea aitzakiatzat harturik, online aukera gainditu, eta elkar aurrez aurre ezagutzeko parada izan dute otsailaren hasieran haurrek eta adinekoei, Zamudioko Truiondo egoitzan bertan, eta azken horien poza nabarmendu du hango langileak: “Goizean goizetik, urduri eta zain zeuden, haurrak noiz etorriko. ‘Ederra da bizitza!’, oihukatzen zuten haien bisitaren ondoren; ‘bizia eman digute’, zioten. Endekapen handiena duenak ere alaitasuna adierazi zuen haurren presentziarekin”. Eta ondoren, familiakoei transmititzen diete halako egunetan haurrei esker bizi izandako poza, Ugartetxeak ikusi ahal izan duenez: “Neure amarekin gertatzen zait, baina baita haren lagunekin ere. Normalean, ez dute eguneko zentroan egindakoari buruz hitz egin nahi izaten; ‘ez dakit’, ‘ez dut gogoratzen’,

erantzuten dute egunekoaren berri galdetuz gero, haurrek erantzuten duten bezalaxe; aldiz, umeen deia edo aurrez aurrekoari edo haientzat egin behar duten lan horri balioa ematen diote, eta ilusioa erakusten dute ondoren etxean”.

Proiektuaren hurrengo urratsa, hain zuzen ere, online aukeratik aurrez aurrekoari igarotzea izango da. Baina COVID-19aren testuingurua hobetu zain daude horretarako. Nahiz eta ekintza batzuk jada programatuta izan eguneko egoitzan bertan egiteko, haurrek antzerki bat eskaini nahi diete adinekoei Liburuaren Egunaren harira, esate baterako. Beste urrats bat proiektua gelatik HHko ziklora edo ikastetxe osora zabaltzea izango da, “haur guztiek izan dezaten esperientzia hau bizitzeko aukera”, Leticia Hennequet Haur Hezkuntzako zikloko arduradunak azaldu duenez. Askartza-Claret ikastetxeko kalitate arduradun Nagore Bilbao ere ildo beretik mintzatu da: “Proiektu honek eurek euren bizitzan eman izan duten hori guztia itzultzen die adinekoei, doako maitasuna. Gizarte mailan, ez dugu baloratzen zer-nolako ondarea den adineko pertsonena, eta proiektu honek argi ikusarazi digu euren balioa. Nagusiek euren bizitzan zehar eman izan duten guztia haurren bidez bueltan jasotzea bezala ikusi dut proiektu hau”.



ESPERIENTZIAK 2

IKASLE ASANBLADA

Ikasle ekintzaile eta parte-hartzaileen dinamika Bernat Etxepare lizeoan

Animatuak, ekintzaileak, parte-hartzaileak eta konprometituak dira Baionako Bernat Etxepare lizeoko ikasle asanblada osatzen duten gazteak. 400 ikasletik 83 dira batzorde batean ez bada bestean parte hartzen dutenak, kopuru esanguratsua inondik inora. Ikasturtean zehar hainbat ekintza antolatzen dituzte eta lizeoko urteak beste modu batera bizitzeko aukera ematen diete, ikasleek diotenez.



Ezkerretik eskuinera ikasle asanbladako lau kide: Itzal Aranzabal, Maddi Egiguren, Laia Igerategi eta Ainhoa Igoa.

Bernat Etxepare lizeoko ikasle asanbladan ikasturtez ikasturte gero eta ikasle gehiagok parte hartzen du. Bizi-bizirik dagoen asanblada da eta ekimen askotarikoak antolatzen dituzte ikasleek. Ikasle asanblada batzordeetan antolatuta dago eta ikasle bakoitzak nahi duen batzordean parte hartzen du. “Ni, adibidez, bi batzordetan aritzen naiz”, dio Ainhoa Igoa terminaleko ikasleak. “Batzorde feministan eta Oier lizeora batzordean”. Itzal Aranzabal, Laia Igerategi eta Maddi Egiguren 2. mailako ikasleak presoen ekimeneko batzordean eta batzorde

feministan aritzen dira. Guztira maila guztietako 83 ikasle dabilta batzordeetan ekimenak antolatzen. “Taldeak orekatzen saiatzen gara” diote, “batzorderen bat jenderik gabe geratzen bada ekimenik ez delako eramango aurrera”.

Beharrezko ikusten dituzten ekimenak antolatzen dituzte, eta garaiaren arabera talde batzuk beste batzuk baino aktiboago egoten direla diote. “Adibidez, azaroaren 25eko indarkeria matxisten kontrako nazioarteko egunaren aitzin edo martxoaren 8aren aitzin astero elkartzen gara zerbait antolatzeko. Behin data horiek igarota, ez gara

hainbeste elkartzen edota beste batzorde batean aritzen gara”.

Presoen aldeko ekimenak antolatzen dituen batzordea Gabonak aurretik urtero aktibatzen da. “Gabonetarako presoei gutunak idazten dizkiegu, haiekin gogoratzen garelara adierazteko”, azaldu du Aranzabalek. “Batzorde bakoitzaren dinamika eta biltzeko maiztasuna egin nahi ditugun ekintzek markatzen dute” argitzen du Egigurenek.

Batzorde feminista, presoen aldekoa, aberri eguneko taldea, ingurumen batzordea, Oier lizeora taldea, Baxoa euskaraz taldea eta Ikasi eta bizi euskaraz batzordea dira lizeoan martxan dituztenak. “Nahi duena eta ahal duena biltzen da eta normalean aire-hartzeetan elkartzen gara”, dio Igoak. “Ez dugu aintz denbora gure ideiak edo proiektuak sakontzeko. Batzuetan zaila da eraginkorra izatea, baina ez dugu hauturik”.

Ikusi eta erakarri

Ikasleen herena barnetegian gertzen da aste osoan (Nafarroa Behekoak, Zuberoakoak eta Lapurdi hegoaldekoak batik bat) eta horrek elkar ezagutzeko eta harremanak sakontzeko balio die. “2. mailakook lehen ikasturtea dugu eta elkar ezagutzen ari gara, bakoitza herri desberdin batetik etorri garelako”, dio Aranzabalek. “Ikasle asanbladaren berri izan dugu eta parte hartzea erabaki dugu. Beste batzuk geroago edota datorren ikasturtean animatuko dira, ziur”. Egigurenek dio antolatutako ekimenek oihartzuna izaten dutela eta jendea animatzeko ere balio dutela. “Ekimenek lizeoa biziarazten dute eta hori asko antzematen da. Adibidez, azaroaren 25ean egin genuen ekitaldia ikusita, 'zer egin duzue!' esaten zuten eta geroztik batzorde horretan ikasle gehiago sartu da”. Ikasle asanbladan parte-hartzeak balio erantsia duela dio Igoak. “Nire ustez beste ikuspegi batetik bizitzen dira lizeoko urteak horrelako talde batean izanez, gehiago inplikatu eta lizeoan gehiago arituz. Ikasten da gauzak antolatzen ondoko urteetarako, autonomia izaten... eta hori inportantea da”.



Lizeoko helduen laguntza estimatua eta konfiantzazkoa

Normalean ikasleek euren kabuz antolatzen dituzte ekimenak, “eta gehienetan badugu Pelloren laguntza, lizeoko zaintzailearena”, zehazten du Igoak. Lizeoko zaindariaren misioetako bat lizeoko animazioa sustatzea da eta, beraz, lotura zuzena du ikasleen asanbladako ikasleekin eta, oro har, ikasle guztiekin, bai proiektu bat laguntzeko edo berak proiektu bat proposatzeko.

Iban Thicoipe zuzendariak dio lizeoko ikasle asanblada oso eraginkorra dela eta ikasleak ekintzaileak direla, eta hori horrela izateko badirela hainbat elementu. “Hasteko, euskalduna izatea, horrek Iparraldean ekintzaile izatearen beharra dakarrelako. Euskarak ez du inolako errekonozimendu ofizialik, azterketek ere ez, eta beraz, horri aurre egiteko antolaketa behar da eta eragin ingurumen desber-

dinetan”. Bigarren ezaugarri gisa konfiantza aipatzen du. “Ikasleak niregana etortzen direlarik, badakite ez dutela ezezko printzipiorik ukanen eta beti entzuten ditugula. Gauzak fundamentuz aurkezten baldin badizkigute, haiek proposatzen dizkiguten ekimenak aitzinera ateratzen dira. Iduritzen zait pentsatzen dutela ez dizkiegula oztopoak jarriko, lagunduko ditugula eta guxtienez pertzepzio horrekin joateak gauzak asko aldatzen ditu. Uste dut badela konfiantza bai gure aldetik haiekiko eta bai alderantziz ere”.

Konfiantza giro horretan sortzen dira ikasle asanbladaren ekimenak, eta talde horretatik at daudenak ere bai. “Ikasle asanbladatik at bada animazioaren inguruan beste talde bat eta horren barruan bada txaranga bat, dantza talde bat, antzerki talde bat, bertso eskola... eta denen artean ikusgarri bat antolatzen dute urtero”.

Lekuko parekideak

Lizeoan ikasleen arreta eta parte-hartzea bereganatu dituen beste proiektu bat ere bada: Lekuko Parekideak. Baionako Planning Familial elkarteak bultzatutako proiektua da. Elkarte honek sexualitatea, indarkeria, generoa, parekidetasuna, diskriminazioa, arrazakeria eta beste hainbat gai lantzen ditu. Baionako lizeoan gai horiek lantzeko prestakuntza eman diete ikasleei eta behin formazio hori jasota, nahi duten ikasleek proiektuaren bigarren urratsera igaro dira: lekuko parekide bihurtu dira eta gainerako ikasleei laguntzen diete. Hau da, arazoren bat duen ikasle orok pareko solaskide hauengana jo dezake arazoa kontatzeko eta laguntza jasotzeko. Astelehenero lizeoko gela batean bi ikasle egoten dira eta edonor joan daiteke material eske, galdetzeraz edo bere arazoa kontatzera eta partekatzeraz.

Plannig Familial elkarteko kideek argi ikusi zuten proiektu hau lizeoko ikasleekin aurrera eramateko modukoa zela, haien inplikazio eta gogoeta maila ikusita.

GRADU ONDOKO BI URTEKO FORMAZIO BERRIA

LEHEN HEZKUNTZA

Badator eraldaketa Lehen Hezkuntzara!

Ikastetxe askotan Haur Hezkuntzako paradigma aldatu egin da, eta haur horiek badatoz goraka... Lehen Hezkuntzan ere benetako premia dago haurraren jakin-minari eta motibazioari erantzungo dioten ikaskuntza prozesuak abian jartzeko. Horretarako, eta benetan konpetentzietan sakontzeko, bidelagun izango den hezitzaile gogoetatsuak tresnak behar ditu.



Informazioa eta matrikulazioa:

ERALDATZEN



▪ Nori zuzendua?

- Lehen Hezkuntzako hezitzaile gogoetatsuei, eraldaketan hasiak edo hasteko gogoz daudenei. Baita aholkulari, zuzendari, ikasketa-buru edota arduradun pedagogikoei ere.

▪ Edukiak:

- Tutore gogoetatsuaren rola.
- 6-12 adin tarteko haurren ezaugarriak.
- Hezkuntza proiektuaren prozesua.
- Espazioen antolaketa.
- Ebaluazio hezigarria.
- Ikaste-prozesuak ulertzen (ikuspegi sozio-eraikitzailea, psikologia kognitiboa eta neurozientziaren ekarpenak).
- Pedagogia sistemikoa.
- Oinarrizko kompetentzietan eta arlokakoetan sakontzea...

▪ Formatzaileak:

- Aritz Larreta (arduradun pedagogikoa)
- Alvaro Beñaran (formazio pertsonala)
- Ane Ablanedo
- Nora Salbotx
- Irene Lopez-Goñi
- David Castrillo
- Elena Laiz
- Marisol Uria
- Neus Sanmartí
- Leire Arana
- Amaia Arroyo
- ...

- Eusko Jaurlaritzak homologatutako formazioa (Nafarroako Gobernuko homologazioa tramitean da).

▪ Matrikulazioa:

Martxoaren 15etik apirilaren 30era.



AHALDUNTZE ESKOLA

HAUTAZKO IKASGAIA BAINO GEHIAGO

Ekonomia ezagutu herritar gisa ahalduntzeko

Gizarte bateko ondasunen ekoizte, banatze eta erabiltzearekin loturiko gertakari eta jardueren multzoa. Horixe da ekonomia Euskaltzaindiaren Hiztegiaren arabera. Gure eguneroko bizitzan erabateko presentzia du ekonomiak baina sigla eta kontzeptu ulergaitzekin lotzen dugu maiz: KPI, aurrezkiak, BEZ, inflazioa, interes tipoak, maileguak, zergak, burtsa, zorrak... Ekonomiaren oinarriko kontzeptuak ezagutzeak ahaldundu egiten gaitu, ordea, eta haur eta gazteei horien gaineko prestakuntza eskaintzeak berebiziko garrantzia du.

Ekonomia hautazko ikasgaia da DBHn eta Batxilergoan baina leku gutxi izaten du hezkuntzan eta herritarrok, oro har, ezer gutxi dakigu gure bizitzak gidatzen dituen zientziari buruz. Adrian Zelaia EKAI Centerreko presidente eta unibertsitateko irakaslearekin izan gara eta berak garbi du: benetako gizarte demokratiko batean ezinbestekoa da herritarrok oinarriko kontzeptu ekonomikoak gaineko ezagutza izatea.

Zergatik da garrantzitsua haur eta gazteek ekonomiari buruzko oinarriko kontzeptuak ezagutzea?

Bi ikuspegi desberdin behar dira: alde batetik, ikusi behar dugu zein puntutaraino izan daitekeen interesgarria maila pertsonalean hainbat kontzeptu ezagutzea eta, bestetik, ikuspegi sozial batetik begiratu behar dugu ea zein puntutaraino den interesgarria gizartearentzat herritarrek funtsezkoak diren kontzeptu ekonomikoak kontrolatzea. Maila

pertsonalean, nor bere bizitza kudeatzeko orduan badira oso interesgarriak diren kontzeptuak: adibidez, lan munduari begira, enpresarekiko harremanak, nor bere aurrezkiak modu egokian kudeatzeko ezagutza... Bestalde, oso interesgarria da oinarriko kontzeptu ekonomiko horiek ezagutzea geure burua gizartearen kokatzeko edota hedabideetatik helarazten dizkiguten mezuak ongi interpretatzen ikasteko. Gako garrantzitsua da hori: ikasleei oinarriko irizpideak eskaintzea komunikabideetatik jasotzen dituzten mezuak ongi interpretatzeko eta hainbat kontzeptu euren kabuz garatzen joateko.

Ikuspegi sozialetik oso interesgarria da herritarrek ekonomiaren oinarriak ezagutzea gizartearen ahalduntzeko. Kontzeptu horiei buruz asko hitz egin zen 2008ko krisian. Orain ere, Errusia eta Ukrainaren arteko gerra dela-eta, jende guztia hasi da ekonomiaz hitz egiten eta ez

dugu tresnarik gertatzen ari dena ongi interpretatzeko orain arte inor ez delako horretaz arduratu. Jendeak ekonomiaren oinarriak ez ezagutzea interes handikoa izan daiteke elite korporatiboentzat edo elite ekonomiko batzuentzat, modu horretan gizartearen euren interesen arabera kudeatzeko. Horregatik da benetan garrantzitsua herritarrok kontzeptu ekonomiko batzuk kontrolpean izatea. Benetako gizarte demokratiko batean funtsezkoa da hori.

Ekonomiaren oinarriko kontzeptuen artean ideologia dago. Ideologia guztietan funtsezkoak dira oinarri ekonomikoak. Ideologia bakoitzaren atzean zer dagoen eta zer ez dagoen interpretatzeko ekonomiaren oinarriko ezagutza izateak berebiziko garrantzia du. Nerabezaroan hasten dira gaztetxoak ideologiarekiko erreferentziak eraikitzen eta erreferentzia horiek ongi interpretatzeko kontzeptu ekonomikoak oso garrantzitsuak dira, hitzen eta etiketen atzean zer

dagoen eta zer ez dagoen behar den moduan ulertzeko.

Beraz, eliteek badute halako interes bat gizarteak, oro har, ekonomiari buruzko ezagutza apala izan dezan...

Bai. Asmoei buruz hitz egitea konplikatua izaten da beti, hori frogatzea zaila delako baina baietz ematen du. Azkenaldi honetan, adibidez, asko hitz egin da moneta politikari buruz. Moneta politikan mugitzen dira agian baliabiderik garrantzitsuenak gaur egun eta moneta politikaren bitartez urtero BPGren ia %10 ateratzen da gizartetik finantza sistemaren esku uzteko. Baina jendeak ez du horren berri izaten moneta politika zer den eta nola funtzionatzen duen ere ez dakielako. Ez dakite moneta politika hedatzaileen atzean zer dagoen benetan eta Europako Banku Zentralaren eta banketxeen arteko harremanak nola funtzionatzen duen. Eta hedabideek nahi dutena azaltzen dute. Oinarrizko kontzeptu horiek oso garrantzitsuak dira eliteen jarduna eta interesak zein diren ongi interpretatzeko. Ez soilik elite korporatiboen interesak interpretatzeko, baita enpresen barnean enpresarien eta sindikatuen arteko talka horien atzean zer dagoen jakiteko ere. Bakoitzaren posizioa eta interesak zein diren jakiteko oinarrizko kontzeptu horien gutxieneko ulermena oso garrantzitsua da. Baina gizartean hutsune handiak daude ekonomia interpretatzeko eta hutsune larria da hori. Zer esanik ez oinarri demokratikoen ikuspegitik.

Gure bizitzan erabateko presentzia du ekonomiak. Jaikitzen garen unetik bertatik ari gara ekonomiari lotutako erabakiak hartzen baina era berean oso urrun sentitzen dugun gaia da.

Nork berak ekonomia propioa kudeatzeko orduan erabaki batzuk hartu behar dira etengabe; aurrezkiak banketxean utziko ditugun ala ez, asko aurreztea komeni den ala ez, zer gertatuko den inflazioare-



kin... Kontzeptu horiek ulertzea garrantzitsua da. Eta, bestalde, ekonomiaren bilakaerak herritarrengan etengabeko eragina du eta horren oinarriak ezagutzeak garrantzi handia du.

Ikasgelan lantzeko materialak sortzen ere aritu zarete. Ekai Centerrek eta Ikastolen Elkarteak elkarlanean ekintzailtza kooperatiboari buruzko unitate didaktikoa argitaratu zuten.

Bai. Kooperatiben gaineko materialak egin ditugu, aurten enpresa eredu alternatiboei buruzkoa prestatzen aritu gara... Ikastolen Elkartearekin batera ekintzailtza kooperatiboari buruzko unitate didaktikoa sortu genuen eta gai horri buruzko dokumentu kritikoak ditugu. Izan ere, ekintzailtzari dagokionez, azterketa ekonomikoaren hutsunea oso nabaria da. Gazteei ekintzailtza zeinen gauza ederra den esaten diegu etengabe, baina ez diegu esaten zein puntutaraino

den zaila eta zein puntutaraino gertatzen diren porrotak horrelako ekimenetan. Ez diegu azaltzen porrot horiek zergatik gertatzen diren eta nola kokatzen den hori guztia logika makroekonomikoaren barnean. Gazteei gai horren gaineko mezu idealistak botatzen dizkiegu: gauza ederra dela eta gogoia edukiz gero aurrera aterako dutela esaten zaie eta, bestetik, gaur egun ekintzailtzaren izpiritua galdu dutela esaten da... Jakina, horren atzean oinarri ekonomiko objektiboak daude eta hori argi eta garbi azaltzea oso garrantzitsua da ganorazko politikak egiteko eta ikasleei ganorazko mezuak helarazteko.

Zer leku izan beharko luke ekonomiak hezkuntzan?

Horren gaineko proposamen zehatza egiteko azterketa orokorra egin behako genuke, baina garbi dago gai garrantzitsua dela eta ekonomiak leku garrantzitsua izan beharko lukeela hezkuntzan.

GALDEIDAZU

ZEIN IZAN ZEN TXILLARDEGIK HEZKUNTZARI EGIN ZION EKARPENA?

Maisulana liburu bat, eleberri bat, saiakera bat, proposamen intelektuala... izan daiteke, haren egilearekin batera, transzendentzia lortu duena, eta, horri esker, bere arloan ohi baino urrunago joatea lortu duena, mugatua zegoenetik harago, betiere.

Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegik* (Antigua, 1929ko irailak 27 – Donostiako Alde Zaharra, 2012ko urtarrilak 14) heziketaren munduari egin dion ekarpena, nire aburuz behintzat, ezin da jakintzarlo berezietara (hala fonetikara nola soziolinguistikara, fikziora, saiakeragintzara, gogamen filosofikora, hizkuntzara edota dialektologiara) soilik mugatu. Aitzitik, Txillardegi hezitzaile gisa zer den konturarazteko, hezkuntza-arloan bertan intelektual modura aztertu behar dugu, ezinbestean. Jite horixe dugu, ordea, egungo Pedagogian gutxiturik bezain ahazturik dagoen joera. Izan ere, irakaskuntzari buruzko proposamen garaikideak azpimarraturiko irakaslearen portaerak teknikariaren irudia hobesten du, eta irakasleen gizarte-inplikazioa baztertzen. Txillardegiren adibideak, berriz, hezkuntza eta hizkuntza intelektualizatu egin dizkigu. Horra hor haren funtsezko ekarpena hezkuntza-harremanen munduari.

Txillardegi, polimata. Asko



FITO RODRIGUEZ Idazlea



zekien hainbat jakintza-arloz. Gainera, bazekien ikuspegi nahiz informazio haiek guztiak elkarrekin behar bezala lotzen eta, une historikoaren arabera, proposamenak egiten. (*Ph. Blom. A Wicked Company*, 2010). Hala, esate baterako, euskara batuaren aldarrikapena zabaldu zuen 1956an Euskaltzaindiari zuzendutako bere “Karta Idigian”. Aintzakotzat hartua izan ez zenez, dimisioa aurkeztu zuen euskaltzain urgazle gisa.

Paradigma-eraldatzailea (*T. Khun. The Structure of Scientific Revolutions*, 1962). Zientziaren historian, errealitatetik jasotako datuak antolatzeke eredu berriak proposatzen dituen berezko eraldatzailea. Horrela, Galileo, da Vinci, Servet, Einstein... mota horretako intelektualak dira. Txillardegik, berak gidatutako Baionako “Euskal Idazkaritza” zeritzonaren bidez, euskara batuaren paradigma berria proposatu zion Koldo Mitxeleneri eta, harekin batera, euskarari, benetako iraultza bideratuz. Hiru gai nagusi arakatu ziren batuaren proposamenean:

1. Izenaren deklinabidea, muga-gabearen erabilera azpimarratuz (garai hartan oso galdua).
2. Aditz laguntzailea, ez osoa, oinarriko jokoak bakarrik.
3. Euskal Herriko toponimoen zerrenda.

1964ko abuztuaren 29an eta

30ean, Biltzarra egin zen Baionan. Piarres Lafitte izan zen buru, eta hauek gonbidatu zituzten: Koldo Mitxelena, Joseba Intxausti, Imanol Berriatua, Xalbador Garmendia, Gabriel Aresti eta Rikardo Arregi.

1964ko Biltzarretik ateratako proposamenaren onespina eskatu zitzaion Euskaltzaindiari (erantzuna lau urtez luzatu zen), eta *Jakin* aldizkariak bere egin zituen erabakiak 1965eko urtarrilean. Proposamen horrekin bat egin zuten orduko idazle gehienek Ermuko bileran, 1968ko ekainaren 28, 29 eta 30ean. Azkenik, Euskaltzaindiak Mitxelena izendatu zuen Literatur Hizkuntzaren Batasuna lantzeko batzordeburu, eta 1968an, Arantzazun, besteak beste, aditz-paradigma berria onartu zen.

Artista askea. (Norbert Elias. *Mozart. Zur Soziologie eines Genies*, 1991). Mozarti buruzko monografia horretan aztertzen da nola erakundeen mendeko intelektualak beren burua askatuz joaten diren. Horrela, Mozart bezalako musikariak, apezpikuentzat edo printzeentzat soilik lan egitetik, “artista” izatera pasa ziren. Hau da, inolako trabarik gabeko balizko sortzaile modernoaren genesisia erakusten digu Eliasek. Horixe, eta ez besterik, izan zen Txillardegi, intelektual berria. Literatura modernoa euskaraz eman zigun idazle urbanoa, laikoa eta iraultzailea. Nazioarteko kultura-erreferentzia europar garaikideak euskal nazio zaharrera ekarri zituen abertzalea.

Jakintzaren maitale. Jakintza maite zuen botereen ginetik (eta kontra). E. Zolak (*J'Accuse...!*, 1898) erabili zuen bide bera erabili zuen. Zola, izan ere, auzitara eramane zuten ohitura onen kontra egiteagatik. Egoera berean gertatu ziren Goncourt anaiak, Jules eta Edmond, 1853an, artikulua batengatik. Baita Flaubert bera ere, *Madame Bovary* eleberriagatik...

Txillardegik *Elsa Sheelen* eleberria kaleratu zuenean, sekulako kritikak jaso zituen, baina bere hautu literarioari eutsi zion horien guztien gainetik.

Einsteinen hitzetan esanda, “ara-

zuen funtsera doan gogoamena” dugu Txillardegi intelektualaren proposamenen ezaugarrietako bat. Hala hizkuntzalaritzan, dialektologian, fonetikan, soziolinguistikian edota glotopolitikan. Txillardegi zenari asko zor zaio, eta zorra kitatzen saiatu beharra dago.

Pentsaera berritzailea. Gizartean errotutako pentsaeraren aurka aritu zen Txillardegi. Galileo moderno baten antzera, aztertu zituen arazoak gehienetan ez ziren abagunekoak, egiturazkoak baizik. Sabino Aranek esandako “Euzkadi da euzkotarron aberria” lelo horri kasu egin beharrean, birmoldatu eta “Euskara da euskaldunon aberria” esan zuen, borroka politikoaren ardatza kulturari jarritz, eta ez arrazan.

Literatura ausarta. R. Descartesez pentsatzeko metodo bihurtu zuen zalantza. Txillardegik, berriz, bere garaiko politika- eta kultura-ordena jarri zuen zalantzan, baita haren borroka-ildoak ere. *Leturiaren egunkari ezkutua* liburuko protagonistak, adibidez, mundu honetan norabiderik gabe aurkitzen dira, eta, aurrera egingo badute, noraezekoa zaie erabaki bat hartzea. Bizitza behin eta berriro aukera bat egitea baita. Txillardegiren idazkera, ene ustetan, entseguidazlearena izan da hastapenetatik amaieraraino: hizkera malgua, sintetikoa, dibergentea, originala; mintzaira joria, sortzailea eta gogoetarako prestatua.

Deuseztatzailea eta eraikitzailea. Lyotardek, modernitate osteko intelektualari buruz aritzerakoan, deuseztatzailea eta eraikitzailea izan behar duela dio. Halaxe izan da Txillardegi. Beraz, Txillardegiren irudi intelektual eta haren ekarpenak bere ardatzetan kokatu behar direlakoan nago.

Subjektutasun existentziala. Txillardegi izan zen gurean subjektutasun existentzialaren bultzatzailea, J. P. Sartrearen bidetik. Esaten zuen kolonizazioari buruz kolonizatua bakarrik mintzatu daitekeela behar bezalako sakontasunez, kolonizazio kulturala kolonizatzaileek sekula izan ez dezaketean bizi-esperientzia delako. Ikuspegi hori zabaldu nahi-

Eskola emateko garaian ere hezitzailearen rola intelektualaren ereduarekin lotu izan du beti, egun ia ahaztua bezain funtsezkoa dugun hezkuntza-jarrera erakutsiz eta, *de facto*, heziketan intelektualaren irudia aldarrikatuz.

rik, J. P. Sartre euskarara ekartzeaz gain, A. Memmiren, F. Fanonen edo L. Senghor-en adibideak ekarri zituen gure kulturara *Branka* aldizkarian idatzitako artikuluetan.

Hezkuntza ere intelektualizatu zuen

Hezkuntza ere intelektual. Jose Luis Alvarez Enparantza hamaika alderdi dituen pertsonaia da. Idatzi honetan, hezkuntzarekin zituen loturak agertzea egokitu zait. Ez da hori, agian, Txillardegiren alderdi ezagunena. Pedagogiaz ez du gauza handirik idatzi, nahiz eta C. Freinet, esaterako, euskarara ekarri zuen.

Gauza pare bat azpimarratu nahiko nuke nik Txillardegi (“Larresoro”, “Usako”, “Harribizketa”...) eta Pedagogia elkarrekin lotzean. Alde batetik, eskola emateko garaian ere hezitzailearen rola intelektualaren ereduarekin lotu izan du beti, egun ia ahaztua bezain funtsezkoa dugun hezkuntza-jarrera erakutsiz eta, *de facto*, heziketan intelektualaren irudia aldarrikatuz. Bestetik, ofizioz hizkuntzalaria izanik, baina, aldi berean, halabeharrezko ikuspegi soziolinguistikoa galdu gabe, bere maisulanetan kasu berezia egin dio

Alde batetik, eta edukiei dagokienez, etengabe gaurkotzen eta birziklatzen ibili zen, eta bestalde, irakasle teknikari huts gisa nahi duen eskola instrumentalistan, Txillardegik hausnarketarako tartea modu irekian eduki zuen beti.

aspaldidanik kezkatzen nauen arazoari: hezkuntzan ahozkotasanari ematen zaion garrantziari, alegia.

Eskola ematean, benetako Txillardegik intelektualaz azaldu da beti, eta horri erreparatu nahi diot nik hemen eta orain, irakasleak izan behar duen erantzukizuna aldarrikatzeko. Izan ere, hezkuntza-erreformaren sasoiaren (erreformismo-garaiaren esanenez, bide batez), errotik garaturiko Txillardegiren diskurtsoa (berdin fonetikaz edo gramatikaz, elebitasunaz nahiz hizkuntza-eskubidez...), haren hausnartzeko gaitasuna, ez dira inoiz motz geratu irakaslearen ustezko neutraltasunaren mozorropean. Aitzitik, haren hautuak beti agerian egon dira, haren eskoletan erreformismoak ez du inoiz tokirik izan.

Laurogeiko hamarkadaren hastapenetan, Zorroagako fakultatean bildu ginenean, aurrean nuen gizona, haren idatziengatik eta haiek sinatzeko erabiltzen zituen goitziengatik soilik ezagutzen nuen. Larresorok edo Txillardegik lanean aritzeko hiru aukera zituen aurrean aldarte hartan. Alde batetik, Deustuko Unibertsitatean irakasle gisa

segitu. Bestetik, Donostian sortzen ari ginen Euskal Herriko Unibertsitate Publikoan aritu; baina, azken aukera horretan bi bide desberdin zituen, gutxienez: Filosofia arloan aritu edo Hezkuntzan murgildu. Azken hori izan zen haren hautua. Eta bere bizitzan egindako besteetan bezala, ene aburuz, hautu intelektual eta erradikal baten ondorioa izan zen hura. Pedagogia aukeratu zuen (orduko Hizkuntza-ren Pedagogia, zehazkiago esanda), Hizkuntza Filosofiaren kaltetan, askoz euskaldunagoa eta euskal gizartearentzat eraginkorragoa-edo iruditzen baitzitzaien, nahiz eta garai hartako Filosofia Fakultateak hasi berria zen Zorroagako fakultatearen ospe eta prestigio gehiena bildu. Pasadizo horrek, bada, haren bizitzako hautuetako baten berri ematen digu. Idatzita ez dagoena.

Kontuan hartu beharra dago garai hartan, heziketa-zereginetan biok batera ibili ginen hartan, pedagogiaren mundua etsipenak jota zegoela. Funtsezkoak izan zaizkigun egileek (Basil Bernstein, Michael Apple edo Pierre Bourdieu eta Jean Claude Passeron) zioten irakasleak indarrean zegoen gizarte mota iraunarazteko besterik ez zuela balio. Etsipen horren aurrean, Txillardegiren zeregin erradikala, nola irakatsitako edukietan hala emandako eskola-formetan, intelektualarena izan da, praktikan, Henry Girouxek teorizatutako irakasle eraldatzailearen ereduari jarraituz (*Los profesores como intelectuales*, 1990).

Hau da, intelektual gisa gizarte-mailan erakutsitako jarrera bera dugu Txillardegik hezkuntza-jardunean erakutsitakoa. Alde batetik, eta edukiei dagokienez, etengabe gaurkotzen eta birziklatzen ibili zen, eta, bestalde, irakasle teknikari huts gisa nahi duen eskola instrumentalistan, Txillardegik hausnarketarako tartea modu irekian eduki zuen beti. Hitz batean, bere bizitza osoa bezala, Txillardegik "intelektualizatu" egin zuen hezkuntzaren jarduna, intelektual eraldatzaile bati dagokion eran, bide praktikoa batez, pedagogiak ahazturik zuen




jarrera kontzientziatzaile historikoa berreskuratuz (Freire, P. *Pedagogía del oprimido*, 1985).

Baina badago Txillardegiren zeregin pedagogikoetan gaur egun funtsezkoa den beste nabarmendura bat. Izan ere, eta goian aipatu bezala, intelektualari dagokion jite erradikal hura gizarteari buruzko ohiko irakurketa marxistazalearekin loturik azaldu ohi zaigu. Bai Bernsteinek, Applek edo Pierre Bourdieuk eta Jean Claude Passeronnek, baita Freirek ere, salatu zuten zapalkuntza, funtsean, salaketa ekonomikoa izan da soilik. Txillardegiren ekarpena, hezkuntza-munduan hizkuntzaren eta kulturaren zapalketari eman beharreko berebiziko arreta izan da (*Euskal kulturaren zapalketa*, 1984). Ildo horretan, bat dator W. Labovek B. Bernsteini berari egindako kritikarekin (Labov, W. *Sociolinguistic Patterns*, 1972) eta M. Stubbsek garai bertsuan proposatutakoarekin (*Lenguaje y Escuela*, 1984). Hau da, eskolak badu hizkuntzaren eta kulturaren arloetan erantzukizun berezia, eta zapalkuntza-egoera iraultzeko lana ere badu.

Eskolan, beste hainbat gauzarekin batera, hitz egin ere egiten da, eta Txillardegiren ekarpen praktikoa zein teorikoa izugarriak izan dira hitz egiteak eskolan duen garrantziaz ohartzeko (*Bat aldizkaria*).

Idazki xume hau Txillardegik intelektualaren ekarpenak dagozkien ardatzetan kokatzeko baliagarria izatea espero dut. Hark irekitako bideak, ordea, oraindik jorratzeke dauzkagu. Segi dezagun, beraz, hazitakoa landatzen eta jasotakoaz gozatzen...

ARGITALPENAK



AMAZONAS

Sangma Francis – Rómolo d'Hipólito

ELKAR

Goi-mendietan ur-txirrio mehe bat sortzen da eta, pixkanaka, erreka txikiek harekin bat egiten dute, munduko ibairik handiena osatu arte. Kontinentea alderik alde igarotzen du eta azkenean, itsasoan isurtzen ditu urak. Planetako ekosistemarik harrigarrienaren etxea da ibai ahaltzu hau. Ongi etorri Amazonasera!



SUMENDI BAT DAUKAT

Miriam Tirado – Joan Turu

CARAMBUKO

Arnasketa kontzienteari buruzko ipuina da, emozioak lantzen laguntzen duena. Beste argitalpen batzuek ez bezala, horiek objektuan eta hitzean oinarritzen baitira, honek kartoi-formatua eduki narratiboarekin konbinatzen du eta helduen eta ume txikien artean partekatutako esperientziak sustatzen ditu.



ESKER MILA!

Isabel Minhós Martins – Bernardo P. Carvalho

KALANDRAKA-PAMIELA

Pazientzia izatea, helduen aholkuak aintzat hartzea, irabazten eta galtzen jakitea, entzuten jakitea, isiltasunaz gozatzea, inguratzen gaituzten gauzen eta momentuen edertasunaz jabetzea... Liburuak esker oneko mezua bidali nahi die bizitzan zehar ezagutzen ditugun pertsonari.




TANTAK ALDIZKARIA

Hainbaten artean

EHU

Euskal Herriko Unibertsitatearen Tantak aldizkariak 33. alea argitaratu du. Bost artikulua bildu dituzte ale berrian eta hainbat gai jorratu dituzte: heziketa fisikoa, giza eta gizarte-zientziak edota goi-mailako hezkuntzan ikasleen intuizioei lekua egiteko modua izan dituzte hizpide, besteak beste.



INERCIA Y SINERGIAS EN LA EDUCACIÓN VASCA. GOGOETAK ETA PROPOSAMENAK

Gonzalo Larruzea

CÍRCULO ROJO

Gonzalo Larruzeak argitaratutako artikulua eta lan nagusien bilduma da liburua. Aldaketa eragozten duten inertiak eta erresistentziak identifikatzen ditu eta etapa berri bati hasiera eman diezaioketen sinergiak hautematen ditu.



MUGA GUZIEN GAINETIK

Xalbat Itzaina – Paxkal Bourgoin

IKAS

Eleberri honek sorterrria utzirik Europa amets duten Maliko lau gazteren bidaia kontatzen du. Emigrazioaren gai korapilatsuari dagozkion nahigabeak agerian uzten ditu idazleak, eta baita gazte horien itxaropena ere. Irakurketa, ulermena eta idazmena lantzeko egokia da.

PROPOSAMENA

Ur mara museoa

Kultura mara-mara

Artelanak erakusgai dituen eraikin handi bat datorkigu burura 'museo' hitza entzuten dugunean. Baina Ur maran artelanak ez daude paretetan zintzilik edota kristalezko erakusleihoetan ikusgai. Ur maran arteak eta naturak bat egiten dute, eskutik helduta aurkitzen ditugu bidelagun banaezinen antzera. Harriak eta egurrak eskultura bihurtuta daude basoarekin bat eginda: hartu, landu eta itzuli. Naturak emandakoa naturari bueltan. Ur mara ez da ohiko museoa. Ur mara topagunea da: artisten, artelanen eta naturaren topagunea.

Lau astok eta landu gabeko eta lantzen hasiak dauden enbor eta harri bloke handiek egin digute ongiatorria. Tailerra ikusi dugu eta aurrerago basoa. Basoan barrena pagoak, haritzak edota lizarrak aurkituko ditu bisitariak. Baita han-hemenka kokatutako hainbat eskultura ere... Karobia, harrobi txiki bat, baratza, hainbat ekintzetarako erabiltzen duten negutegia (erakusketak, kontzertuak, tailerrak...) eta Henry David Thoreau filosofo eta naturalista estatubatuarri eskainitako espazioa ere aurkituko ditugu Ur maran.

Koldobika Jauregi eta Elena Cajaraville artistek sortu zuten Ur mara museoa 2010. urtean, Alkizan. Ez da ohiko museoa: artea, natura eta gizakia uztartzen dituen topagunea da Ur mara. Baina proiektuan sinetsi zuten, gogotik egin zuten lan ametsa egi bihurtzeko eta hamabi urte beranduago bizi-bizi dago Ur mara. Jauregik azaldu digu nola

hasi zen dena: "Elenak eta biok sei urte pasa genituen Alemanian artea eta natura uztartzen zituen proiektu batean lanean eta pentsatu genuen halako espazio bat sortzea polita izango zela. Bestetik, Cesar Manrique fundazioak egiten dituen proposamenak ere aintzat hartu genituen. Manriquek, besteak

beste, proposatzen zuen inbertsio guztiaren %10 baino gutxiago izan behar dela diru publikoa. Bestela, iritzia lotuta geratzen zaizu, zenbait gairekin ezin duzu hain kritiko izan eta dependentsia ekonomiko handia sortzen da. Gure kasuan diru laguntza publikoa %7koa da eta horrek askatasun handia ematen digu".






Ehundaka pertsona urtero

Jendeak egiten du Ur mara. Urtero 1.500 pertsona inguru pasatzen dira bertatik eta nahikoa dela dio Juaregik, ingurunea ez baitute hondatu nahi. Bertan dagoen tailerra edonoren eskura dago; badira bertan egonaldiak egiten dituzte artistak eta beste batzuk euren lana ezagutaraztera gerturaten dira. Bisita gidatuak eskaintzen dituzte eta bazkariak antolatzen dituzte tarteka.

Eskolentzat ere tailerrak eskaintzen dituzte. Esku tailerra, beirate tailerra, eskultura tailerra, ehungintza tailerra... Eta basoan grafitiak egiten dituzte. Baina garrantzi handiena hartzen duena papergintza tailerra da. Papera eskuz egiteko prozesua hasieratik amaieraraino egin daiteke Ur maran, papera egiteko landareak baitituzte baraztean. "Osinak, ilarrak, larrak... erabiltzen hasi ginen eta baita artoa ere. Artoarekin paper asko egiten dugu eta birziklatu ere egiten dugu: koloretako kartulinarik, egunkariak

eta kartoia birziklatzen ditugu. Baita asto kaka ere. Papera egiteko zelulosa behar da. Hostoek barnean dute zelulosa. Zebrek, zaldiek, astoek, elefanteek... ez dute zelulosa digeritzen eta kakatan ateratzen da. Kakaren % 80 zelulosa da. Guk lehortzen dugu, iragazten dugu eta lasto txikitua balitz bezala gelditzen da. Ez du batere usainik. Astoak prozesu osoa modu naturalean egiten du: jan egiten du, sabelean egoste prozesu modukoa egiten du eta gero bota egiten du", azaldu du Jauregik. Papera soilik ez, marrazteko ikatz-ziriak ere ekoizten dituzte: "Bisita hasi aurretik sutan jartzen ditugu eta itzultzen garenerako prest daude. Ikatzen prozesua azaltzen dugu modu horretan".

Askotariko jarduerak egin daitezke Ur maran eta eskolak bertara gerturaten direnean eskaintza une horretan lantzen ari direnaren arabera eta dituzten beharren arabera egokitzen dute. Betiere naturatik gertu eta naturarekiko errespetua bultzatuz.



Ur mara museoa

Azaldegi 18
20494 Alkiza
www.urmara.com

Bisita gidatuak

Sei pertsonako taldeak osatzen dituzte eta bi ordu inguruko ibilbidea izaten da.

Eskolei zuzendutako arte tailerrak

- Papergintza tailerra
- Esku tailerra
- Beirate tailerra
- Eskultura tailerra
- Ehungintza tailerra
- Grafitiak basoan
- ...

Iraupena: 4 ordu.

Lantzen diren arloak: ondarea eta arte plastikoa.

Sustatzen diren balioak: garapen jasagarria, lankidetzeta, enpatia, naturarekiko lotura, genero berdintasuna...

Tailer guztiek materialen berrerabilera dute oinarri.

ATZEKO ATETIK



DENBORAREN ZURRUNTASUNA

ARATZ VITORIA PORRAS
GASTEIZKO EKIALDEA INSTITUTUKO
2. BATXILERGOKO IKASLEA

Egunak 24 ordu ditu, eta, horien artean, 7 ikastetxe barruan igarotzen ditugu. Nire institutuan, 8:00etan puntu-puntu ateak ixten dituzte, eta 14:55 arte ez dituzte irekitzen, patora ateratzeko izan ezik. Etxera heldutakoan, segituan bazkaldu eta korrika eta presaka Matematikako errefortzu saioetara joaten naiz astelehen eta ostegunetan; ondoren, etxera itzuli ikasten jarraitzeko. Astearte, ostegun eta ostiraletan, bizikleta hartu eta errugbian entrenatzera joaten naiz Gasteizko beste puntara. Itzuli, afaldu eta, esan bezala, ikasten jarraitzen dut. Asteburuetan, aldiz, partidua izan ohi dut, eta larunbat arratsaldeetan lagunekin irteteko aprobetxatzen dut. Kontuak eginda, esan daiteke egunero 10 ordu inguru igarotzen dudala liburuen artean, eta, asteburuetan, berez nire aisialdian, 4-5 ordu.

Honelakoa da Batxilergoko bigarren mailako 17 urteko gazte arrunt baten bizitza. Hori guztia eraman-garria da normalean, azterketa garaia heltzen den arte, hau da, hilabetean behin. Martxoko eba-

luazioan, gainera, ebaluazio hori garrantzitsuena dela entzuten egon gara; notak igotzea komenigarria dela behin eta berriz entzuten dugu, hurrengo urtean nahi dugun graduan edo unibertsitatean sartzeko. Nire kasuan, batxilergo soziala egiten dut, eta oraindik ez dakit zer ikasi nahi dudan, baina lehenbailehen erabakitzea komeni zait, gutxieneko nota zein den jakiteko.

Gauzak horrela, inoiz baino gehiago ikasteko unea heldu da, ikasturtea amaitzeko gutxi geratzen zaigulako. Ondoren, selektibitatea. Bai, Selektibitatea, Euskal Herriko zein Estatu osoko gazte guztion ikara: ikasturte osoan zehar emandako ikasgai guztien azterketa. Heldu gutxik imajinatu dezakete zer-nolako presioa pairatzen dugun ikasleok garaiotan, “titulitisak” jota gaudela aintzat hartuta.

Duela bi urtetik hona, COVID-19ak gazteon bizitzak hankaz gora jarri ditu, arlo sozialean zein hezkuntza esparruan. Aldaketarako behar horrek eredu berrietara egokiarazi gaitu, nahi eta nahiez. Garai latzak bizi izan baditugu ere, nire irudiko, gazteon indarrak eta

aurrera egiteko gaitasunak nagusitu dira. Konfinamenduaren osteko garaian ondoren, gazteok jakin izan dugu alaitasunez berrito elkartzen, kaleak berreskuratzen eta gure proiektu komunitarioak garatzen.

Eta hori guztia errealitate bihurtu ahal izateko, ezinbesteko zaigu ikasle mugimendua. Ikasgeletako ratioak jaitea, kontrol soziala desagertzea, protokolo eraginkorrek sortzea eta euskaraz ikasteko bitartekoak eskaintzea ez dira aldarrikapen hutsalak. Gure egunerokotasuna eta etorkizuna ditugu jokoan, eta eguneko 24 orduetan gainezka nagoen sentsazioa askotan izaten dudan arren, argi daukat borrokatzeak merezi duela. Nekatuta gaude entzuteaz gaurko gazteok dena daukagula eta edozer lortzeko ez dugula inolako esfortzurik egin behar, zeren gure adineko edonor jakitun da zein den aurretik daukagun panorama beltza. Beltza... Gorria... Baina alaitasunez eta kemenez beteko ditugu gure erronkak, eta amesten dugun etorkizuna ekarriko dugu gure kaleetara, ikastetxeetara, bizitzetara, bihotzetara...

*Jaso etxean bertan zientziari eta
teknologiari buruz jakin nahi
duzun guztia*

elhuyar

aldizkaria



HARPIDETU!

BADATOR ERALDAKETA LEHEN HEZKUNTZARA!!!

Graduondoko bi urteko formazio berria

